

SANINAZIOAK ▶ Festetako programetako bitxikeriak



HORRA HISTORIA

ÍÑAKI GOENAGA BERE BIZITZAKO ISTORIO UGARI KONTATUZ



Enbido ▶



Pako Aristi

Agur, maiteok!

Agur esan behar dizuet. Urtebete eman dut Azpeitiko bizitza, neurri batean Euskal Herriko bizitza bera dena, aztertzen eta kritikatzeko, institutuan erakutsi ziguten bezala, geroztik era guztietako eta alor ezberdinetako maisu ugari gogorarazi diguten bezala: ez inoiz galdu iritzi kritikoaren ahalmena gertakizunen aurrean, eguneroko inertiaren aurrean, eta izan beti zeu, eta esan zeuk pentsatzen duzuna, ez bolo-bolo denek, lasai egoteagatik, esaten dutena. Jendea batzuetan haserretu egiten zait honen-entzat, baina sentitzen dut, ni horrelakoxea naiz.

Eta agur esan behar dizuedan honetan, gertatzen bat dago urte osoan burutik kendu ez zaidana: herriko bederatzi gazte espetxera joateko daukaten arriskua, eta ezer egin gabe gainera. Euskal Herriak hamarkada hauetan izan duen eskubide urraketa latzenetakoa hau izan da: gaztediak jaso duen jipoia, errepresio poliziala, bermerik gabeko epaiketak, frogarik gabeko kondenak. Benetan mingarria egiten zait ikustea hemen zenbat gazte ezagutu duen espetxera inongo errurik gabe, haien aurkako inolako elementurik gabe, txikieria hutsengatik: botila bat bota, zerbait erre, kartelak jarri, errepidean gazteen larrua merke zegoen, botereari kontra egitea garesti dagoen bezalaxe. Bost egun pasa ditzakezu koartelean ehun mila ostiako jasotzen, eta ez da ezer gertatzen. Orain, agintari bati bultzatzen badiotzu... espetxera joan zaitezke. Horrelaxe dago banatua justizia Euskal Herrian, denontzat berdina behar lukeen hori.

▶ **AZPEITIKO EGOERA.** Burugabekeria krudel honen adibide mingarri bat ari dira bizitzen Azpeitian bederatzi gazte: 2002ko inauterietan gazte lokalak eskatzen zebiltzan, euren mozorro eta pankartekin. Orain aurreko alkatea eta zinegotzi batzuek zeuden kafetegira sartu eta aurrean jarri zitzaiz-

kien. Besterik ez. Hauek modu txarrean hartu zuten, eta bultzatzen eta biraoka hasi gazteen kontra. Trifurka txiki bat sortu zen. Besterik ez. Eta berriro idatziko dizuet: besterik ez.

Hura ezagutu eta orain gazteek daukaten kondena eskaera ikustea nahikoa da jabetzeko Euskal Herrian zerbaitek (eta zenbaiten buruak) ez duela ondo funtzionatzen: bost urteko kartzela zigorra eskatu du fiskalak gazte bakoitzarentzat, eta 3.000 euroko isuna, bakoitzarentzat hori ere. Gazte hauek ez zuten ezer egin, gauza bat eskatu modu baketsuan. Eta gero euren burua babestu iraindu eta erasotu zituzten agintari eta lagunengandik.

Politikan gauzak hotz eta tenplez egin behar dira, pausoak aztertuz eta neurtuz, baina zer esango dizuet bada, ezagutu al duzue horrelako politikorik Azpeitian? Hemendik aurrerakoak ez badiara... Berotasun hartan, mendeku goseak jota, gorrotoak gidatuta, alkateak salatu egin zituen gazteok, lekukotzat bere lagunak zirela. Agintarien neurri gabeko kabrea hosto eta tenplatu zenerako berandu zen: gero salaketa erretiratu egin zuten, baina fiskalak hartu zuen hura aurrera ateratzeko bidea.

▶ **ITXAROPENA.** Inoiz gertatu behar ez zuen benetako ipuin honetan, ordea, itxaropen pixka bat ikus daiteke. Ekainean izan da epaiketa, eta udazkenerako atzeratua geratu da, alkate ohia eta lekukoak ez zirelako azaldu deklaratzera. Okerrean eta txarrean borondate ona existitzen da, oraindik. Eta agintari hauek nahita ezkutatu dira, ea fiskalak frogatzen ezean errugabe uzten dituen. Hurrengo epaiketan ere ez agertzea espero dugu, eurek ireki zuten bide zikin eta ankerra ixteko modu bakarra horixe baita.

Barkamena eskatzea gehiegizko izango litzateke elizako barkamen fiktizioak soilik eskatzera ohituta dauden kristau hauek, baina oker egin zutela aitortzea bai polita izango litzatekeela. Ez al da ederra hanka sartu dugula onartzea, eta akatsetik ikastea? Gure historia txikiaren pasarte bati bukaera ona eman diezaiogun, behingoz.

HILEKO GALDERA ▶

Azpeitia herri fantasma bihurtuko al da aurtengo abuztuan ere?

hitzeko

euskara eta komunikazio zerbitzuak

665 723979

hitzeko@hitzeko.com

tzulpenak - zuzenketak - normalizazio planak - komunikazioa

uztarria

1.000 BAZKIDE LORTZEAR

► Bazkide egitea urtean 24 EURO besterik ez dira

► PRODUKTUETAN ABANTAILAK izango dituzu

deitu 943 15 03 58ra

971

bazkide gara. **ZU?**



Alaitz Olaizola

Bakoitzak berea

Bizkaiko herri txiki batean, igande eguerdian, lagun bat eta biok sartu gara taberna batean. Pintxo bat jateko asmoz hasiera batean, baina eskaintzen zutena hain urria zela ikusita, raba batzuk jango ditugula erabaki dugu. Emakume zerbitzariak, aurrez abisatu digu, zertxobait itxoin egin beharko dugula, eta guk, baietz, itxoingo dugula. Itxoiten ari garen horretan, eguerdiko ordu batak direla kontu egin da, gure ondoko mahaian eserita badago emakume bat. Ez dakit nola definitu. Trentza luze zuria, aurpegi zurbila. Hasi da izozkiak jaten. Bat, gero beste bat, eta horrela, bost izozki jan arte. Gu, aho bete hortz, rabei itxoiten. Gure ondorioak: zerbait izango du emakume horrek, tabernan ezagutuko dute... Gero, bermuta berak bereziki eskatutako ontzian patata frijituen laguntzaz, eta tartean, zigarro luze eta fin bat piztu du, dotore. Halako batean, gure rabak iritsi dira. Sei, sei raba platerean. Laguna eta biok, elkarri begira geratu gara. Emakumearen bost izozkiak eta gure sei rabena ezin ulertuta. Sekula ez baitugu hain denbora gutxian inor horrenbeste izozki jaten ikusi. Sekula ez baitzaigu gertatu, rabak eskatu eta seirekin topo egitea.

Ez gara batere aldatu. Urte gutxiren buruan, lan erraza ere ez da. Ikusten ditugu herrian bertan, txikiteo latza jotzen dutenak ere, hamarna txikito edango dituztenak. Batzuek izozkiak, besteek ardoa... Zigarroak, bata bestearen atzetik erretzen ikusi eta "ño, bat bestearen atzetik erretzen du horrek". Beti horrela, besteengandik komentarioa gora eta behera, norberaren xelebrekerietan erreparatu gabe. Gurea normala balitz bezala, eta besteena aldiz, anormala. Jardutea gogoko dugu, denok. Besterik dioena, ez da egia esaten ari.

Horregatik nioen ez garelako batere aldatu. Sestak pizteko sekulako trebezia dugu gurea bezalako herrietan, eta askotan, arrazoi handien beharrik gabe. Etsaiak bilatzen dira nahi gabe ere, eta adiskideak aldiz, ezta nahita ere.

Ea. Inori kalterik egiten ez badiot, ezingo ote dut ba nahi dudana egin? Edo zergatik ez, komeni zaidana? Edo akaso, denok ez al dugu egiten norbe-

arentzat zuzena den horren alde, edo, gertukorenbati babesa emanen dion horren alde? Arrazoiak asko dira, eta egia bakarrak, bakoitzarenak.

Horrelaxe da. Oso sinplea, eta era berean, gezur handia. Joerak oso markatuak daude, pentsaerak, usteak, militantziak, koloreak, usainak... Eta horrek guztiak, kiratsa dario. Nire lagun batek esaten duen moduan, "Usaina ona da, kiratsa txarra".

Ez naiz nire errebindikazioetan babestua sentitzen, eta zerbait badaukat, neronek lortua dela gero eta argiagoa daukat. Erregalatu, hemen inork ez du ezer egiten, ez niri eta ezta beste inori ere. Hala, beraz, ez eskatu inori ezer.

Bakoitzak badaki zer egin eta zergatik egin.

▶ **BEREIZTU BEHARRA.** Gauzak bereizten jakin beharko genuke, eta ez dakigu. Modu pertsonalean hartzen ditugu kontu asko eta asko. Eta herri honetan, ohituta gaude, ekitaldi, edo mobilizazio desberdinetan, oso jende gutxirekin topo egiten. Eta zer? Ezer ez. Lastima, datorren urtean gehiago izango gara... Eta, aurrera. Esaten duenak, entzuteko ere pronto egon behar du. Eta, hala al da?

Ez naiz batere argi ari. Badakit jarduna baino ez dela nirea, eta normalean argia izatea gustatzen bazait ere, oraingoan borondatez ari naiz. Ulertu nahi duenak, ulertuko du. Galderak dituenari erantzuten ari natzaio, dudak dituenari, argibideak ematen. Gerra galduak asko dira, eta gehienak, norberarenak.

Txiklela ziruditen rabak jan eta laster hartu dugu berriro Azpeitirako bidea. Emakume izozki zaleari ez diogu galdetu zergatik jan dituen horrenbeste izozki, bost izozki zazpi bat minututan. Zerbait gertatzen zitzaiola pentsatu dugu eta seguruenik, niri kafea bezala, berari izozkiak gustatuko zaizkio. On egin diezaiola ba! Zer demontre! Niri behintzat, berak jandakoek kalterik egingo ez didatenez... Kalte, ez ote didate egingo jan berri ditudan goma zati hauek... Gosea ez baitidate kenduko, ezta apetitoa ireki ere. Eta emakumeak arrazoa bazuen? Batek daki!

Azkenean jardun hau guztia zertarako? Ba, aurtengo festak ondo pasa ditzazuela desiratzeko. Gaudenak disfruta dezagun eta ez daudenak gogoan izan ditzagun.



ZURE BEREZKO DOTOREZIA JANZTEN DUGU

LURRINAK - BITXIAK - MAKILLAJEAK - OSAGARRIAK

gotain



LURRINDEGIA

ERDIKALEA 3, AZPEITIA
TEL. 943 814 358

**BILATZEN DUZUNA BILATZEN DUZULA,
BETI GAUZA BERA AURKITUKO DUZU**

AUKERARIK ZABALENA

Era guztietako produktuak eta zerbitzuak, diseinuak eta prezioak. Nahi dituzun bezalako baxerak edo mahaitresnak, ateentzako heldulekuak, gortinentzako barrak, tiradera-eskulekuak, sukalderako osagarriak eta etxerako eta brikolaje-lanetarako behar duzun guztia... **etxeberrian** den-dena aurkituko duzu. Baita gure profesionalen arreta eta laguntza osoa ere.



**etxe
berria**
Brikolajea & Etxea

1. 2. 3. 4. 5. 6. 7. 8. 9. 10. 11. 12. 13. 14. 15. 16. 17. 18. 19. 20. 21. 22. 23. 24. 25. 26. 27. 28. 29. 30. 31. 32. 33. 34. 35. 36. 37. 38. 39. 40. 41. 42. 43. 44. 45. 46. 47. 48. 49. 50. 51. 52. 53. 54. 55. 56. 57. 58. 59. 60. 61. 62. 63. 64. 65. 66. 67. 68. 69. 70. 71. 72. 73. 74. 75. 76. 77. 78. 79. 80. 81. 82. 83. 84. 85. 86. 87. 88. 89. 90. 91. 92. 93. 94. 95. 96. 97. 98. 99. 100.



Mendinuetaari agurra

Mirari

Bereziartua

▶ Ikasberri Azpeitiko

Ikastolako zuzendari

ohia da Mirari

Bereziartua, eta

Ikasberriren hasieratik

Elias Mendinuetaekin

orpoz orpo jardun izan

du lanean ikastolaren

alde. Orain dela aste

batzuk omenaldia egin

zioten Mendinuetaari,

honek Ikasberriko

lehendakaritza utziko

duelako, eta idatzi

hauxe irakurri zuen

Mirari Bereziartuak

Hamalau urte lehendakari eta hamaika lan elkarrekin! Senekakzioen: "Ez gara ausartzen gauza asko egiten zailak direlako, baina zailak izaten dira ausartzen ez garelako". Hi Elias, ausartu izan hintzean eta zaila posible bihurtu duk.

Urte hauetan ikastolari eustea eta indarberritzea nahi genuela adierazteko Joxean Artze Hartza-ren, olerkia erabili diagu behin eta berriz:

*Iturri zaharretik
edaten dut
ur berria edaten
beti berri den ura
betiko iturri zaharretik.*

Eta hori izan haiz hi, Ura. Ura bezala oztopo ziren harri tarte guztietatik dariola beti aurrera egingez.

Zenbaitetan, eutsi eta eutsi ahaleginetan gelditzeak usteltzea eta desegitea suposatzen dik, baina ura bezala, egokitzen jakin duk bide malkartsuan. Harri tartetik zirrikitoak topatu eta aurrera egingez indartsu segi duk. Ur saltoa hala behar zenean, ur apala hurrengoan, beti, gelditu gabeko ur bizia.

▶ **NORABIDEA.** Ondo begiratu eta ezagutu dituk gure mendi-bideak markatzen joan diren harraitz gogorak. Horren protestan denborarik galdu gabe, tartetik geure norabidea jarraitu duk beti.

Hor egon duk hire indarra, urarena bezalaxe. Ez zegok ura apurtuko duen mailurik, ez da ere zaurituko duen labanarik. Munduko ezpata indartsuenak ere ezin dik uraren azala zartatu eta markatuta utzi.

Urola ibaiaren bidea jarraituz etorri hintzean Legazpi-Brinkolatik gure herriraino, Azpeitiraino, eta ura bezala, bihurtune okerrenetara ere egokitzen jakin duk, norabidea inoiz galdu gabe, ibai guztiak itsasorako norabidea jarraitzen duten bezalaxe. Handik eta hemendik ibili bai, behar den adina, baina beti itsasoruntz.

ESKERRAK ▶

Hemen gaudek, ikastola proiektua bizirik mantentzen eta emozionatuta hiri eskerrak ematen

Ibaiaren iturburua bezala, xumea bere sorreran, baina bidean inguruko urak bilduz gero eta indartsuagoa, erabateko indarra lortuz azkenean.

Hire itsasoa, Euskal Herria eta ikasleak izan dituk. Herriaren eskubideak eta ikasleen eskubideak, euskaldun eta pertsona bezala, zaindu eta indarberritzeko bideak markatu dituk hori dena auzolanean egingez.

Eskubideak indarrean irauteko, bideak berritu egin behar izaten dituk eta aldaketak zailak eta mingarriak bihurtzen askotan. Eutsi egin behar behin eta berriro hor aurrean egonez tinko. Tinko helburuetan eta xamur pertsonekin.

Umorearen koloreaz eta musikaz jantzi duk bidea eta guztiontzat xamurragoa eta alaiagoa egiteko moduak topatzen jakin izan duk.

Beti izan duk, hik heuk ondo ez egindakori aurpegia eman eta barkamena eskatzeko gaitasuna. Eta horrek ere onratze hau.

Baina gaur, utziko diguk emaitzekin gozatzen eta hirekin batera denon artean lortu dugunarekin harro sentitzen garelara adierazten. Hiri esatearekin batera gu guztiok horrekin identifikatzen garelako.

Esker onekoa izan haiz eta orain ordainetan jaso ezak gure poza eta esker ona, guk horrelaxe nahi dugulako.

Hemen zegok egin dugun etxea, bai, baina hemen gaudek jendea, ikastola proiektua bizirik mantentzen eta emozionatuta hiri eskerrak ematen. Hiri eta zuen familia osoari: Maria Jesus, Ane, Odei eta Eider zuon guztion emaitza delako. Ondotxo zekiagu guztiok hori, bakoitzareen familiak egin duelako aurrera proiektuarekin, batzuek nabarmenago, besteak itzaleko ixiltasunean.

▶ **AUZOLANA.** Auzolanean jarraituko diagu, Euskal Herriak bere errailetan dakarrelako mendeetan zehar horrela aurrera egiteko modua.

Nik neuk asko ikasi diat hirekin eta izugarri aberastu nauk. Buruz azkarra haiz, bihotzez aberatsa eta ekiten berriz, aurrea eta nekaezina.

"Asko estimatze haut" esateak balio handia zeukak eta hala duk. Baina bakoitzaren bizitzako baliorik haudiena maitasuna denez, horixe esan nahi diat bihotzez.

Beste asko eta askoren sentimentu berdina adierazteko aproposena norberarena adieraztea denez hau duk nirea: asko maite haut.

Trauskil ▶ Jon Berdejo



AZPEITIA, abuztuak 13

Hau ▶



Jokin Uranga

Etxe hutsak...

Gazteok eta ez hain gazteak, arazo larri baten aurrean aurkitzen gara etxebizitza bat eskuratzeko orduan. Berez eskubide bat behar lukeena, aberats eta bere bizitza hipotekatu eta kondenatzeko prest dagoenaren luxu puta bat besterik ez baita etxe bat eskuratzeko ametsa.

Gaur egun, gazte bat lanean ari bada, 900 euro irabaziko ditu batez beste. Gero etxe bat eskuratzeko orduan, 40 milioi pezeta eskatzen zaizkigu gutxienez, 30 urtean ordaintzeko, 900 euro horietatik, egunero bizitza aurrera ateratzeko behar dudana, kotxea ordaintzeko, eta gainera etxea? Puff! Eskerrak ordu extren irtenbidea hor dagoen, 30 urtean nagusiari ipurdia mihazkatzen ibiliko banaiz ere, nik neure etxea izango dut, eta asteko sei egunetan lana egin, nagusiaren Zarauzko etxea ere ordaindu behar baititugu!

Baina konturatzen ez garena da, promotoreak eta gure lantegietako nagusiak guri odola xurgatzen ari diren bitartean, Azpeitian, alde zaharra etxe hutsez betetzen ari dela, usteltzen ari diren etxe zaharrez! Hori ezin da onartu, logika guztietatik kanpo dagoen zerbait da. Leku bat, gune bat erabiltzeko moduan baldin badago, zertarako egin berria? Hori ez da, ez etikoa, ez logikoa, kapitalismoaren iruzurra baino ez da.

Esatea erraza da, baina zergatik kapitalismo basatiaren aurrean murtu baino lehenago, ez dugu irtenbidea aurkitzeko saiakera egin?

Askok pentsatuko du urrutiegi joan dela, ezin zaiola aurka egin. Ez naiz iritzi horretakoa. Etxe huts horiek norbaitenak dira eta beste nonbait bizi dira. Udaletik edo ez dakit nondik, zergatik ez zaie exijitzen bigarren etxea eskuragarri jartzea? Edo bigarren etxearen zerga igotzea?

Karasusaren etxea ere triste ikusi dut aspaldian huts-hutsik, norbait berarengana hurbiltzeko esanez bezala, agian...

Galdetuz ▶

Zer aldatuko zenuke San Inazio festetan?

INAZIO MARIA ARREGI ▶

azpeitiarra



"Dauden bezala asko guztatzen zaizkit. Ez nuke ezer aldatuko. Gehien gustatzen

zaizkidan ekitaldiak zezenketak eta meza nagusia dira".

MARIA JESUS ARETA ▶

azkoitiarra



"Zezenketak behintzat, kendu egingo nituzke. Gaueko taldeak ere aldatuko nituzke

eta talde euskaldunak jarri. Bestela, gustura etortzen naiz Azpeitiko festetara".

EUXEBIO BELOKI ▶

azpeitiarra



"Zezenketak eta talde patxangak kenduko nituzke, eta festa herrikoia goak

eginten saiatu, oraingo handikeririk gabe; herritarrentzako festa bat".

IRUNE EGIGUREN ▶

azpeitiarra



"Udal programaziotik dena aldatuko nuke. Bereziki zezenketak

kenduko nituzke, gaueko talde horiek, prozesioa... Azken batean, dena aldatuko nuke".

Apunteak ▶

GORA.

Uztailaren hasieran jarri zen Kultur Karteldegia martxan. Azpeitian horrelako zerbait behar zen, horrela Udalaren eta talde guztien ekimenen berri izateko aukera baitago herrian.

GORA.

Abuztuan herrian geratzen da, bai, jenderik, eta haientzat primeran etorriko da kanpoko igerilekua freskaturen bat hartzeko.

ZALANTZA.

Aurten ere ez da festetarako egitarau bakarra osatu, eta, beraz, dudak sortzen ditu hurrengo urtean osatuko den.



Herriko zebra-bide bat. UZTARRIA

GALDERA.

Zergatik errespetatzen dute Azpeitian auto gidariekin hain gutxi zebra-bidea? Ez iruditzen beste herrietan gehiago errespetatzen dela?

Uztarrria.com ▶

Inkesta.

Zein da kanpoko igerilekuari buruz duzun iritzia?

- ▶ **Beharrezkoa da.** %28,5.
- ▶ **Ona.** %28,6.
- ▶ **Besterik gabe.** %22,2.
- ▶ **Ez da beharrezkoa.** %6,4.
- ▶ **Eskasa.** %14,3.

Orain dagoena.

▶ **Inkesta.** Nork erabaki beharko luke txupinazoa zeinek bota?

▶ **Eztabaida.** Musika taldeek zergatik ez dute ikuslerik plazan?

Iritzia ▶ Festa Herrikoien Aldeko Batzordea

San Inazio festak

Heldu dira, gure herriko jaiak, nahiz eta herritar ugari oporretara joateko aprobetxatu. Zaila da bakoitzak festa nola bizi duen adieraztea, baina garbi dagoena da azpeitiarren eta saninazioen arteko maitasuna ahulduz doala.

Nahiz Euskal Herria taberna handi bat bezala irudikatu, jaiez gozatzen dakien herria gara, jaiak ez baitira ongi pasatzeko soilik, kulturaren eskaparate eta bizimoduaren isla ere badira. Horregatik bizi ditugu jaiak hain sakon, izaeraren adierazle direlako.

Nahi edo ez, herri honen baloreen artean kontsumismoak tokia egin du eta jaietan ere bota ditu sareak, erostea modan dagoen sasioan, festak ere sale-rosketako gai bihurtu dira. Saninazioak dira horren adibide, kanpotik erosi eta herritarrei gureak bailiren saltzen saiatzen garen jaietan herritarrak oporretara joatea ez da harritzekoa. Ez garelako moztortzen,

ezta baserritarrez jantzen ere, edota danborrik jotzen. Ez garelako festen partaide goaz oporretara.

Helburu horrekin bildu gara zenbait herritar; jaiak kulturaren isla izateko. Horretarako ezinbestekoa da herritarrak festaren protagonista izatea, bertako ospakizunetan parte hartuz eta nola ez, hauek antolatuz. Antolaketarako hainbat arazo izan ditugu eta horietako bat Udalarekin izan da. Gure iritziz, Udala da festen antolatzaile eta herritarrak laguntzaileak. Hori da funtsean, azken urteotan egitarau alternatibo bat ateratzearen arrazoia, nahiz eta azken legealdiko Udalak ahalegin handiak egin eta zenbait postura gerturatu, funtseko arazoak hor dirau. Egitarau bateatua ez izatea ondorio naturala dela deritzogu.

Festa Herrikoien Aldeko Batzordeak hala eta guztiz ere, herritar guztiei dei egiten die festetan parte hartu eta gozatzeko. Ondo pasatu saninazioak.

Oporren sinonimo

Duela gutxi Loiuko aireportura joan beharra izan nuen, nire familiar-teko batzuk bidaian zihoazela-eta taxista lanetan. Ederra aireportua, ederra bertaraino egin duten autobia berria eta ederra zinez bertan zegoen jendetza. Horko "kaixo", eta "*hombre*" eta "zuek ere hemen" eta horrelakoak. Sekulako kola ekipaia fakturatzeko, erdiak azpeitiar eta azkoitiarrak, eta gainontzekoen artean inguruetako ezagun ugari.

Bidaia bat erosten duzun momentuan, badirudi bakarra zarela munduan bidaia horretan joango dena, areago helmuga izen exotikoa duen irla bat bada. Aukeraketaren emozioak, leku ezezagunek pizten duten kuriositateak eta irekitzen zaizkizun perspektiben kitzikagarritasunak, pribilegiatuetan pribilegiatu sentiarazten zaituzte. Ene gizakide gaixok, kendu paretik, zorionerako txartela daramat eta! Iritsi baino lehen dagoeneko, lanean geratzen direnen sufrikarioan pentsatzen dugu, norbera eguzkipean ikusten den bitartean, txuletak bezala, buelta eta buelta beste zereginik gabe.

Izan egizaleak, eta onartu horrelakorik pentsatu izan duzuela noizbait. Gaiztoak al gara ba gizakiok berez? Ez horrelakorik, inuxente galantak esango nuke nik, saldutakoa sinesten dugulako eta gero aireportuan bertan demostratzen zaizkigu ideia txoro horiek, kinka larrian hegazkinean denak kabituko garen edo ez pentsatzen. Gaur egun, oporrak bidaiatzearen sinonimo dira eta ez lanik gabeko egunena, langile bezala urtean irabazitako eskubidearena. Nora edo hara irten beharra dago, disfrutatu nahi bada behintzat... Hala saltzen digute, geratzen garenok leloak bagina bezala. Bidaia agentzia ezagun baten aurtengo eslogan solidarioa: "Inor gerra ez dadin oporrik gabe". Nik uste nuen hori sindikatuen lana zela.

◀ Eta beste



Ainhoa Odriozola

ELIAS MENDINUETA ▶ ikasberriko lehendakari ohia

“Ikastolaren auzian gogor jokatu nuen baina eskubideen alde izan zen”

▶ Testuak eta argazkiak: Amaia Mendizabal



LEHEN HARRIA.

Gaur egun duten eraikineko lehen harria 1996ko martxoaren 16an jarri zuten. Orduko ekitaldira, Ikastolen Elkarteko lehendakari zen Antonio Campos etorri zen, besteak beste —hitz egiten ageri dena da—. Haren atzean da Mendinueta. IKASBERRI

Elias Mendinueta aurtan eman dio amaiera Ikasberri Ikastolaren zuzendaritzan egindako ibilbide luzeari. Atzean utzi ditu, alde batetik, liskar urte ozpinak; baita herri proiektu bati eskainitako izerdi gozoko lan ordu luzeak ere, ordea.

9 urte Ikasberri Ikastolako lehendakaritzan. Nolako balantzea egiten duzu?

Hainbat arlo bereiztuko nituzke. Lehenengo eta behin, arlo pertsonalean, urte gogorrak izan dira, baina aldi berean, interesgarriak; eta horrenbestez aberasgarriak. Bigarrenik, ikastola ikuspegitik ere balantzea positiboa da. Izan ere, duela urte batzuk bailara ikastolarik gabe gelditzeko zorian egon zen, Izarraitze Kooperatiba sare publikoan sartzeko asmoak zirela eta. Ikastola proiektuari eutsi izana, eta gainera, aurrera indarrez atera izana, oso positiboa izan da. Gainera, benetan ekimen herrikoia izan da, jende asko inplikatu baita. Neurri horretan, ez dut uste zentro publiko bat gehiago izan daitekeenik.


Ikastolaren sorrera arteko bidea ere nahiko arantzatsua izan zen.

Une gogorrak izan ziren. Nire

ustez, ez zuen merezi izan egoera hainbeste gogortzeak. Izan ere, argi zegoen herrian bi aukera sendo eta zilegi zeudela eta, zorionez, biak gauzatzeko aukera zegoela. Izan ere, ez zegoen banatzeko arazorik ez eraikin aldetik, ezta pertsonal aldetik ere; ume kopurua ere bi proiektuak asetzeko adinakoa zen. Baina bai politikoei eta bai herriko zenbait jendek, agian atzean beste interesen batzuk zituztelako, ez ziren saiatu herritarren nahiak bideratzen. Horrek egoera asko ozpin du zuen, borroka eta haserreak sortuz.

Nola jokatu zenuen zuk?

Onartzen dut oso gogor jokatu nuela, baina eskubide baten defentsan borrokan ari nintzen; inposaketa baten kontra, gure eskubideak bermatu nahian. Auskalo zenbat bozketa egin ziren, eta alde batekoek nahiz bestekoek beti boto kopurua antzekoa jasotzen zuten; hau da, posizioak argi finkatuta zeuden. Beraz, ez zuen zentzurik borroka hura mantentzeak. Nik uste alde horretatik beti zintzo jokatu izan nuela: beti proposatu nuen bi aukera zeudela eta biei eman behar zitzaizela bidea. Gertatutako guztia gizarte bezala ditugun gabezien erakusle



izan zen; ustezko demokrazia hau akatsez betea dagoela erakutsi zuen. Kostatu egiten zaigu ulertzea eskubideak erabiltzeko direla, eta ez bitrina batean edukitze-ko, batzuek uste bezala.

Zatiketa horren ostean, gaur egun nolakoa da bi zentroen arteko harremana?

Gaur egun ez dago harreman instituzionalik. Nik uste ez bata eta ez besteak ez dutela elkarren premia sentitzen. Egia da agian nik alde egitea mesedegarri izan daitekeela zenbait gauzatarako. Izan ere, nik oso argi dakit zeren adierazle naizen, eta zenbaitentzat oztopo izan daitekeela ni hor egoitea. Baina Karmelo Etxegarairekin ez dugun bezala, Iraurgiarekin ere ez dugu harreman berezirik.

Ikasberrik Euskal Eskola Nazionalaren ideia landu izan du. Zertan datza?

Nik uste guri dagokigula kontzeptu hori sortu izana. Lehenago Eskola Publiko Berria edo antzeko ez hitz egiten zen. Guk, aldiz, naziotasunaz oraindik oso gutxi hitz egiten zenean, garbi ikusi genuen herri bakoitzak bere nortasuna mantentzeko ezinbestekoa dela bere eskola propioa izatea: herri honen seme-alabak euskaraz hezteaz gain, era berean euskaldun bezala heziko dituen, inongo lotsarik gabe. Donostian badago Eskola Ingelesa; hark, ordea, ingelesez irakasten badu ere, ez du bihotzez ingeles inor egiten. Hizkuntza gauza bat da, baina herritar izatea zerbait gehiago da.

Eskolari lan hori al dagokio?

Bai. Gure iritziz, herritartze lan hori eskolari dagokio. Garai batean hezkuntzaren kalitateaz hitz egiten zen, herritartasuna aipatu gabe. Izan ere, ez omen zen hori matrikulatzen zirenetako batzuen interesa. Baina orduan nire galdera da: helburuek poltsikoaren mende egon behar al dute? Orduan, zer da ikastola gainontze-koetatik bereizten duena? Bestalde, kontzeptu honekin guk nahi dugun eskola mota hori ere irudi-

Lidergo falta

“Ikastola mugimenduak izugarrizko gabezia du, lidergo falta baitzaio. Era berean, Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza Sailarekiko mendekotasuna handia da eta ez du ausardiaz jokutzen. Nire iritziz, Hezkuntza Sailarekin harremanak izatea beharrezkoa da, baina ezin da proiektu gisa administrazioaren mende egon. Lastima da; izan ere, ezin da dena politikoen esku utzi eta hauen zain egon. Etorkizuneko gure herria zinez herritarra izatea nahi baldin badugu, bai ikastolak eta bai herri mugimendu guztiak dira beharrezkoak”.

ka nahi genuke; hau da, gurasoak parte aktibo diren ikastola bat. Baina, parte aktiboa izateko, argi daukagu jabegoa ere izan behar dugula; ikastola sentitu egin behar da norberarena bezala. Erabaki ahalmena gure eskuetan mantendu nahi dugu. Ikastolen 30 urteko esperientzia administrazioaren eskuetan uztea, Hezkuntza Sailaren ardura duen alderdi politikoaren mende egote-ko, ez zaigu bidezkoa iruditzen.

Beraz, zure iritziz, zein da ikastola batek gizartean bete beharreko funtzioa, heziketaz gain? Motor kulturalarena?

Hala da, bai. Orain arte, eskola eduki transmisorea izan da; baina eguna materiaz betetzea ez da nahikoa, emozio edukia ere eman behar da. Bestalde, estatu modernoak sortu zirenetik, boterea oihartu egin da eskolaren eta intelektualitatearen indarrak. Horrela, botereak eskolarena den funtzioa xurgatu nahi izan du. Horretarako, eskola sistemaren baitan sartu nahi izan du, hezkuntza menperatzaile bilakatuz. Guk aurrez zeukan paper hori berreskuratu nahi genuke. ◀

elkarriketa osoa
www.uztarria.com-en

“Agian nik alde egitea mesedegarria izan daiteke zenbait gauzatarako, oztopo izan naitekeelako”

“Ikastolak, euskaraz hezteaz gain, euskaldun bezala hezi behar ditu gure seme-alabak, inongo lotsarik gabe”

25 urte

IBILIAN

Aurten 25 urte bete dituzte Itsasiko ttuntturroek Euskal Herriko kaleetan euren dunbak astintzen eta jendea alaitzen; aurrera segitzen dute

► Argazkiak: Itsasi Dantza Taldea




TRADIZIO MODERNOA.

Tradizio handikoak dira ttuntturroak Euskal Herrian, baina ez dute horregatik modernitatea alde batera uzten. Hona hemen Itsasiko zenbait ttuntturro Eibarko eskailera mekanikoetan.

JANZTEN.

Kaleetan euren dunbak astindu aurretik jantzi egin behar izaten dute, baina ez da erraza izaten. Begira bestela nola estutzen dien joaleari soka gerri bueltan.



HERRIAN.

Urtean zazpi bat irtenaldi egiten dituzte ttuntturroek, Euskal Herrian ibiltzen dira normalean, baina Frantziara eta Espainiara ere joanak dira. Argazkian, Azpeitiko plazan.



MENDIAN.

Orain kalean paseatzen dituzte hamar kilo inguruko ardi larru, dunba, ttuntturro eta isipoz osatutako trajeak. Baina mendietan ere ikusiak dira traje dotore horiek.


OÑATZEN ENTRENATZEN.

Hasieran Itsasiko lokal zaharrearan entrenatzen ziren. Zarata asko ateratzen zutela-eta kexatu egin omen ziren, eta Oñatzen gora eta behera hasi ziren entrenatzen orduan.



IZENA.

Nahiz eta gehienek pentsatu 'ttuntturro' izena, astintzen dituzten dunbengatik dela, ez da horrela. 'Ttuntturro' izena, erabiltzen duten txapel luze eta koloretsuak emanikoa da. Ttuntturroa txapela da, eta dunba kanpaia.



BEROA.

Hotz edo bero, berdin entseatu behar izaten da, ondoren erakustaldi bikaina emateko. Hasiera haietan bazituzten zenbait truko bero gutxi pasa zezaten. Begira zein dotore ibiltzen ziren Oñatzera bueltaka.

JOAN...

Gurean ▶
MIKEL IZAGIRRE

▶ Arnasa taldeko kidea

“Jendeak sinesten dugu”

Mikel Izagirre Arnasa taldeko kidea da. Talde hori orain 8 hilabete sortu zen, Urnietan erraustegia egitearen asmoa azaldu zenean. Izagirrek asko ikasi omen du harrezkero gai horri buruz.

Azpeitira ere erraustegien kontra hitz egitera etorri zara...

Bai. Betikoa egitera: erraustegia beharrezkoal den edo ez galderari buruzko ikerketa azaltzen dugu, eta galdera horri erantzuten saiatzen gara batik bat. Erraustegia-
ren inguruko datu batzuk ere ematen ditugu, eta zein alternatiba izan ditzakeen ere azaltzen dugu pixka bat.

Eta jendeak zer?

Normalean inork ez du kontuan hartzen inguruan tokatu arte. Baina gure hitzaldietara datorren %80k esaten dugu-
na sinestuta irteten dute. ◀



Herri Arteko txapela herrira

Ekainaren 27an jokatu zen Herri Arteko Gipuzkoako pilotak finala: Hernani-Azpeitia. Hernaniarrek erraz egin zuten beren lehen puntua, 22-4 irabazi baitzuten. Baina puntu bat eta bakarra, ondorengo biak azpeitiarrek irabazi zituztelako, eta txapela herrira ekarri zuten. Igande arratsaldean ongi-etorri festa handia egin zitzaien Azpeitian.



Alex Arrietak urrezko domina

Alex Arrieta igerilari gazteak hiru domina irabazi zituen Espainia Txapelketan. 100 metro librean urrezkoa. Erreleboetan, berriz, zilarrezko eta brontzezko dominak eskuratu zituen.



Udaleku arrakastatsuak

Uztailaren 9an aurkeztu zuen Azpeitiko Musika Bandak CD berria: *Azpeitian Zezenak*. 22 kantuz osatua dago, eta horietatik 5 Jose Luis Frantzesenak konposatuak dira.

‘Azpeitia Zezenak’ CDan

Uztailaren 9an aurkeztu zuen Azpeitiko Musika Bandak CD berria: *Azpeitian Zezenak*. 22 kantuz osatua dago, eta horietatik 5 Jose Luis Frantzesenak konposatuak dira.



UZTAILAK 3 ▶ Azpeitiko V. Erremonte Txapelketan Iribarren eta Gazteluk 40-24 irabazizieten Matxin IV.a eta Badiolari. **UZTAILAK 7** ▶ Turismo informazio puntua martxan jarri zen Loiolan. **UZTAILAK 7** ▶ Aiako gizon bat hil zen Olatzen basoa garbitzen ari zela. **UZTAILAK 9** ▶ Presoen eskubideen aldeko topagunea aurkeztu zuten. **UZTAILAK 10** ▶ Keixeta baserrian Sistiaga erreko harrobiaren egoera salatzeke prentsaurrekoa egin zuten. **UZTAILAK 20** ▶ Xabier Zabaleta kamioilari azpeitiarra (40 urte) hil zen istripuan, Zestoan.

ETORRI...



UZTAILAK 29 ▶

Aurkezpena.

▶ *Azpeitian Zezenak* diskoaren aurkezpena. Udal Musika Bandaren eskutik.

- ▶ 21:30etan.
- ▶ Plaza Txikian.

UZTAILAK 30 (ostirala, San Inazio bezpera) ▶

Festen hasiera.

- ▶ Txupinazo ofiziala.
- ▶ 12:00etan.
- ▶ Udaletxeko balkoitik.
- ▶ Txupinazo alternatiboa.
- ▶ 12:00etan.
- ▶ Herriko plazan.

Pailazoak.

- ▶ Kiki, Koko eta Moko pailazoak.
- ▶ 17:00etan.
- ▶ Plazan.

Musika.

- ▶ Biznietos de Celedón txaranga.
- ▶ 18:00etan.
- ▶ Kaleetan.

Kontzertua.

- ▶ Julian Barrenetxea eta Parrokiko abesbatzak Julian Barrenetxearen arratsaldeko otoitzak eta Salbea kantatuko dituzte. Organuan, Maria Dolores Oteiza izango da, Pedro Illaramendiren gidaritzapean.
- ▶ 19:30etan.
- ▶ Loiolako Basilikan.

Musika.

- ▶ Los Reyes mariatxiak.
- ▶ 21:00etan.
- ▶ Kaleetan eta plazan.

Kirola.

- ▶ San Inazio txapelketako erremonteko finala.
- ▶ 22:30etan.
- ▶ Izarraitz pilotalekuan.

Suzko erroberak.

- ▶ Zaragozana su etxea.
- ▶ 23:00etan.

Musika.

- ▶ Herriko talde bat eta Banda Bassoti.
- ▶ Txosnetan.

Musika.

- ▶ Golden Apple Quartet.
- ▶ 23:30etan.
- ▶ Plazan.

Musika.

- ▶ Trikitio taldea.
- ▶ 23:30etan.
- ▶ Olazko Amaren plazan.

Musika.

- ▶ Mariatxi taldea.
- ▶ 01:00etan.
- ▶ Plazan.

UZTAILAK 31 (zapatua, San Inazio eguna) ▶

Diana.

- ▶ Herriko Musika Banda, Biasteriko Dultzainariak eta Izarraitz Txistulari Taldea.
- ▶ 09:00etan.
- ▶ 10:10etan, udal korporazioa Parrokira.
- ▶ 10:30etan, Prozesioa.

Meza.

- ▶ Juan Maria Uriartek Donostiako gotzainak eta herriko apaizek emanda Meza Santua. Bertan Julian Barrenetxea abesbatzak *Regina Pacis* meza eskainiko du.
- ▶ 11:00etan.
- ▶ Soreasuko San Sebastianen parrokian.

Zezenen aukeraketa.

- ▶ Arratsaldean toreatuko diren zezenen aukeraketa.
- ▶ 12:00etan
- ▶ Zezen-plazan.

Musika.

- ▶ Udal Musika Banda.
- ▶ 13:00etan.
- ▶ Plazan.

Haur parkea.

- ▶ Rokodromoa, tirolina, arku tiraketa, txirrista puzgarria...
- ▶ 16:00etan.
- ▶ Plazan.

Zezenketa.

- ▶ Saninazioetako lehen zezenketa. Javier Conde, Matias

Tejera eta Jose Mari Manzanares toreatazaileak izango dira.

- ▶ 18:00etan.
- ▶ Zezen-plazan.

Musika.

- ▶ Txatunga Benbe.
 - ▶ 18:00etan.
 - ▶ Kaleetan.
- Musika.**
- ▶ Tximeleta txaranga.
 - ▶ 19:30etan.
 - ▶ Zezen-plazatik irtenda.

Musika.

- ▶ Esmeralda orkestra.
- ▶ 20:30etan.
- ▶ Plazan.

Pilota.

- ▶ Aspeko pilotarien eskuzko pilota partidak. Beloki II-Begino/Mendizabal-Pinedo, Unanue-Beloki/Olaizola II-Peñagarikano.
- ▶ 22:00etan.
- ▶ Izarraitz pilotalekuan.

Suzko Erroberak.

- ▶ Zaragozana su etxea.
- ▶ 23:00etan.

Musika.

- ▶ Herriko talde bat eta Desmaskaradas.
- ▶ 23:00etan.
- ▶ Txosnetan.

Kontzertua.

- ▶ Esmeralda orkestra.
- ▶ 23:30etan.
- ▶ Plazan.

Dantza.

- ▶ Kemen dantza taldea.
- ▶ 23:30etan.
- ▶ Olazko Amaren plazan.

Musika.

- ▶ Imuntzo eta Beloki.
- ▶ Dantzarien atzetik.
- ▶ Olazko Amaren plazan.

ABZTUAK 1 (igandea, San Inazio bigarren) ▶

Diana.

- ▶ Izarraitz Txistulari Taldea, Azpeitiko Musika Banda eta Biasteriko Dultzainariak al.
- ▶ 09:00etan.

Ongi-etorria.

- ▶ Udaletxean Eusko Jaurilaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiko agintariari ongi-etorria egingo die Udalak.



HERRI BAZKARIA.

Festa Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta bazkaria. Ondoren irrintzi txapelketa, txiste kontalariak eta kalejira.

UZTAILAK 30 ▶ 14:30etan ▶ Plazan ▶ Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta

...ETORRI



ABUZTUAK 2 (astelehena, San Inazio hirugarrena) ▶

Txokolatada.

- ▶ 07:00etan.
- ▶ Plazan.

Diana.

- ▶ Izarraitz Txistulari Taldea eta Biasteriko Dultzainariak.
- ▶ 09:00etan.

Zezenen aukeraketa.

- ▶ Arratsaldean toreatuko diren zezenen aukeraketa.
- ▶ 12:00etan
- ▶ Zezen-plazan.

Haur parkea.

- ▶ 16:00etan.
- ▶ Plazan.

Zezenketa.

- ▶ Hirugarren eta azken zezenketa. Bertan, Manuel Diaz *El Cordobés*, Cesar Jimenez eta Salvador Vega izango dira bertan toreatzen.
- ▶ 18:00etan.
- ▶ Zezen-plazan.

Haurren txokoa.

- ▶ Gaztetxoentzat jolasak, musika...
- ▶ 18:00etan.
- ▶ Plazan.

Musika.

- ▶ Oria Txarangaren ekitaldia.
- ▶ 19:30etan.
- ▶ Plazan.
- ▶ Herriko txaranga.
- ▶ 19:30etan.
- ▶ Olazko Amaren plazan.

Suzko erroberak.

- ▶ Zamorako Caballer su-etxea.
- ▶ 23:00etan.

Musika.

- ▶ Amalur taldearen emanaldia.
- ▶ 23:30etan.
- ▶ Olazko Amaren plazan.

Festen bukaera.

- ▶ Suziri eta danbatekoekin San Inazioei agurra.
- ▶ 00:00etan.
- ▶ Plazan.



KEN 7.

Aurreko urteetan izan duen arrakasta ikusita, aurtan ere Ken 7 musika taldeak –argazkian– kontzertua eskainiko du herriko plazan. Betagarri taldeak ere egun eta leku berean joko du.

ABUZTUAK 1 ▶ 23:30ean ▶ Plazan ▶ Azpeitiko Udalak antolatuta

- ▶ 10:15ean.
- ▶ Plazan.
- ▶ Ondoren Loiolako Basilikara joango dira.

Meza Nagusia.

- ▶ Juan Maria Uriarte Donostiako gotzainak eta herriko apaizek eskainiko dute.
- ▶ Bertan Julian Barrenetxea eta Parrokiko abesbatzak Jose Luis Frantzesenaren *Emaguzu Pakea* meza kantuko dute. Organularia Jose Luis Frantzesena izango da, eta abesbatzen zuzendari lanetan Jaime Amenabar ariuko da.
- ▶ 11:00etan.
- ▶ Loiolako Basilikan.

Zezenen aukeraketa.

- ▶ Arratsaldean toreatuko diren zezenen aukeraketa.
- ▶ 12:00etan.
- ▶ Zezen-plazan.

Aurreskua.

- ▶ Itsasi dantza taldeak ohiko aurreskua eskainiko die agintariei.
- ▶ 13:00etan.
- ▶ Plazan.

Haur jolasak.

- ▶ Haurrentzat parke berezia eta jaialdia.
- ▶ 16:00etan.
- ▶ Plazan.

Goitik-beherak.

- ▶ 18:00etan.
- ▶ Komuntzoko aldapetan.

Zezenketa.

- ▶ Bigarren zezenketa: Juan Diego, Manuel Jesus *El Cid* eta Alejandro Amaya.
- ▶ 18:00etan.
- ▶ Zezen-plazan.

Musika.

- ▶ Gazteleku txaranga.
- ▶ 18:00etan.
- ▶ Zezen-plazatik irtenda kaleetan.

Musika.

- ▶ Los Pasaia Txaranga.
- ▶ 19:30ean.
- ▶ Kaleetan.

Afaria.

- ▶ Herri afaria.
- ▶ 21:00etan.
- ▶ Kalean.

Pilota.

- ▶ Asegarcekoen eskuzko

pilota partidak. Baleztena-Urberuaga/Otaegi-Laskurain, Titin-Barriola/Irujo-Pascual, Capellan-Galartza VI/Nagore-Zezeaga.

- ▶ 22:15ean.

- ▶ Izarraitz pilotalekuan.

Suzko erroberak.

- ▶ Astondoa su-etxea.
- ▶ 23:00etan.

Dantza.

- ▶ Nyírség Táncgyesület Hungriako dantzari taldea.
- ▶ 23:30ean.
- ▶ Olazko Amaren plazan.

- ▶ Ondoren, Saioa, Alabier eta Lutxurdio trikiti taldearekin erromeria.

Musika.

- ▶ Sugarri txaranga taldearen kalejira.
- ▶ 05:00etan.
- ▶ Kaleetan.

Zezena.

- ▶ Zezen enbolatua.
- ▶ 07:00etan.
- ▶ Plazan.

festetako

BITXIKERIAK

Saninazioak 1967an zazpi egunekoak izan ziren, urte batzuetan programan publizitate asko jartzen zuen Udalak, bertako zezenak izaten ziren zezen-plazan...

► Testuak: Ainitze Oruesagasti eta Iñintza Agirretxe



Auskalo zenbat San Inazio festa izan diren honezke-
ro! Uztarriak urteetan ka-
leratutako esku programen azter-
keta egin du, eta bertan bitxikeria
ugari topa daitezke. Hauek horie-
tako batzuk:

PROGRAMARIK ZAHARRENA ►

1912. Uztarriak esku artean izan duenesku programarik zaharrena da 1912. urtekoa. Egitarau horretan topa daitekeen bitxikeria, Nuarbeko gaita-jole eta dultzain-joleak dira. Nahiz eta festak xumeagoak izan, zezenketak eta ahari jokoak izaten ziren.

FESTEN IRAUPENA ►

7 eguneko festak. 1967an aste-beteko festak izan ziren. Tartean egun bat atsedena hartzeko izan zen. Segidako urteetan motzagoak izan arren, gaur egun baino luzeagoak izaten ziren, normalean abuztuaren 3an bukatzen baitziren.

ERRALDOI ETA BURUHANDIAK ►

Festetan ezinbestekoak. Gaur egungo erraldoi eta buruhandiak 1972an egin bazituzten ere, aurrez herrian zeuden erraldioen itxura kontuan hartuta egin ziren.

San Inazio festetan erraldoi eta buruhandien kalejira aspaldi egiten den ekitaldia da (1912tik bai behintzat). Tradizio horretatik gaur egun Umeen Euskal Festa egunean egiten den erraldioen lehiaketa sortu zen.

IZARRAITZ PILOTALEKUA ►

Inaugurazioa. 1972an San Inazio herri jaien egitarauaren barruan, Izarraitz Pilotalekuaren inaugurazioa sartu zuten. Hortik aurrera San Inazio festetan hainbat partida jokatu dira bertan. Garai batean herriko pilotari eza-gunak aritzen ziren egun hauetan pilotan. Adibidez, 1933an Izarraitz pilotalekuan, Txikuri eta Aranburu, Atano anaien aurka aritu ziren.

PUBLIZITATEA ►

Herrikoa. 1930. hamarkada hasieratik esku programetan publizitatea sartzen hasi zen Azpeitiko Udalak. 1958an sartu zuten azkeneko aldiz publizitatea programe-tan. Urte batzuetan inolako iragarkirik gabeko egitarauak izan badira ere, 1990. hamarkadan publi-erreportaia ikus zitezkeen programetan. 1930. hamarkada-ko iragarkietan esaldi zelebre asko topa daitezke. Hona hemen horietako bat:



Buruhandi eta erraldoiak herriko kaleetan umekin jolasean.

► *"Magnífico restaurant con servicio al menú y a la carta y precios económicos. Habitaciones con todo el confort moderno. Café y licores de las mejores marcas. Cervezas y refrescos. Helados y chocolates. Mariscos y aperitivos".* Hotel Casino.

ZEZENKETAK ►

Bertako zezenak. 1930. hamarkadan, Lasturko zezenak ikusitezkeen Azpeitiko zezen-plazan. Toreatzaileak ere bertako gazteak izaten ziren. Urte batzuk geroago Espainia eta Hego Ameriketatik etorritako toreatzaile ezagunak izan ziren nagusi zezen-plazan. 1969an, adibidez, Manuel Benítez *El Cordobés* bezalako toreatzailea izan zen herrian. Beste asko izan dira: Paco Camino, Espartaco, El Juli...

EUSKARA ►

Garbizalekeria. Esku programa asko gaztelaniaz idatzita daude. Euskararen lehen aztarnak 1930. urtetik aurrera daude. Lehengo eta oraingo euskararen artean ezberdintasun asko topa daitezke. Adibidez, toreatzaileari 'zezenkari' deitzen zioten, esku programari 'azalkuna', erraldoiei 'zentoia', eta abuztuari 'dagonila'. Kontuan izan behar da garai hartan euskarari dagokionez, hizkuntzaren garbizaletasuna erabileran asko bultzatzen zela sektore batzuetatik.

ERROMERIA ►

Denetik pixka bat. Garai ezberdinen arabera gauza ezberdin ugari aurki daitezke Azpeitiko erromerien historian. Esku programarik zaharrenetan banda militarrak eta txistulariak ibiltzen ziren plazako giroa berotzen. Urteak joan ahala Egan eta Akelarre bezalako euskal musika talde ezagunak alaitzen zuten herriko plaza. Azken urteotan Alcatraz eta era horretako orkestra erdal-dunek ere izan dute lekua.

AURRESKUA ►

Euskal dantza. 1912an bazuen bere lekua aurrekuak. Garai hartan aurreku lehiaketako parte-hartzaileek 20, 15, 10 eta 5 peze-ta irabazteko aukera zuten. Gaur egun, ez da txapelketarik izaten, baina Itsasi Dantza Taldeak saninazio bigarren gozatzeko aukera dantzatzen du plazan.

SUZIRI JAPONIARRAK ►

Umeentzako. 1960. hamarkadatik hona herriko haur eta gazte-txontzat egon izan dira suziri japoniarrak. Iaz ume batzuek min hartu zuten eztanden ondorioz, kexak egon ziren, eta aurren ez da horrelako jokorik.

BOMBERO TORERO ►

Umorea zezen-plazan. 1970. hamarkada bukaeratik izan da herrian Bombero Torero ikuskizunaz gozatzeko aukera. ◀

uztarria.com

albisteak - iritziak - efemerideak - agenda... Parte hartu Azpeitiko atayen, erraza da.

Biele

oinatz
PODOLÓGIA ZENTRUA

ABUZTUKO EGUTEGIA

GOIZEZ: 2tik 6ra eta 23tik 31ra

ITXITA: 9tik 22ra

Julian Elorza 1, beheka - Tel. 943 81 50 38

MENDE BAT oroitzapen

Iñaki Goenaga 'Sistiya' Loiolan,
Ormaetxe baserrian jaioa da;
99 urte ditu eta hamaika pasadizo

► Testuak eta argazkiak: Oihana Elduaen eta Kepa Urbieta

Istorio guztiak "bazen behin gizon bat..." esanez hasten dira, eta oraingo honetan ere antzera hasi behar. Bada gizon bat, gizon txikia bezain handia, historia egin duena eta mila istorio dituen kontatzeko. Pasadizoen bila abiatu ginen eta 100 urteko denboran zehar ibilaldi bat egiteko aukera izan genuen, larunbat goiz batez. Iñaki Goenaga *Sistiya* Ormaetxe baserrian jaio zen duela 99 urte, eta sei anai-arreben artean bigarrena da.

Bizitza osoan munduan gehien maite duena berarekin eraman izan du: euskara. Gaztetatik Lauaxeta, Zaitegi, Ibiñagabeitia, Orixe... Euskal Herrian handiak izan diren giza-semeen inguruan ibilia da. Euskara bihotzean eta paperean ibili ditu Sistiya, gazteleraz hitz egiteko jazarpen guztien gainetik. Beti legeari desafio eginez ezkutuan edonori laguntzeko eta on egiteko prest agertu izan da. Egunkarietan idatzi zuen, gerra kronikak frontetik, liburu bat itzulia du alemaniatik euskarara (*Wilhelm Tell*, Yakintza, 1934. 1935), eta beste mila lan...

► **HERRITIK KANPO.** Azpeitiarra bada ere, herritik kanpo egin ditu urte gehienak. Eibarren, Irunen, Venezuelan, Argentinan... Preso hartu zuten Santoñan (Espainia) italiarrek eta Lizarrako, Iruñeko eta Urduñako kartzeletan egona da. Orain berriro jaioterrian da. Uztarriak ohorezko bazkide egin zuen ekainaren 19an.

Pasadizoak jasotzeko Hendaian egin genuen hitzordua, han oporraldi txikia pasatzen ari dela eta. Hara bidean historiara pasatuko ez den guardia zibilen kontrol bat pasatu eta 20 minutuko atzerapenarekin hartu gintuen; *Euskaldunak*... kanta zaharrez hartu ere. Hiru orduz goiz eder bat eskaini zigun. Berak esana da: "Kontu asko ditut nik, kontatzeko modukoak eta kontatu ezin direnak". Oroimena behintzat, ederra du. Eta jarraia, mundiala.



1 Ikastetxeetan barrena euskararekin. "Olazko Ama Birjinaren ermitatxoan ikasi genuen, hura genuen guk eskola umetan. Elizan kantatzen genituen salbeak. Nik ahots ona nuen.

Irakasleak, ordea, erdaldunak genituen, hor behekoak, andaluziarrak. Baina benetako gure irakasleak aita eta ama izan genituen. Ormaetxe baserrian jaioetakoa naiz, Izarraitzpean. Gure habia

hura izan da. Han irakatsi didate niri euskara eta ondoren nik nire seme-alabei irakatsi diet. Euskara maite dut gehien. Maristetan ere egon nintzen. Garai batean, orain Aitonena dagoen lekuan

zegoen maristen eskola. Irakasle bati *Okotz* deitzen genion, kokotsa handia zuen eta. Ipurdikoak ematen zizkigun hark euskaraz egiteagatik. Baina zer egin behar genuen ba, euskara bakarrik bagenekien! Inor ez zitzaigun etorri erdara erakustera. Piper asko egiten genuen handik. Frontoira joaten ginen pilotan egitera; Damian, gerora inprenta aterako zuen Martinez, nire anaietako bat ere bai... Loiolan ere bazen eskola bat, Garate Anaiaren etxearen aurrean. Nobizioak egoten ziren orduan eta leku ezberdinetako jendea zegoen. 10 lagun handi bildu ginen bertan: Lauaxeta, Argarate, Ibiñagabeitia... Euskarazko akademia atera genuen, han ere erdaraz egiten baitzen beti, edo grekoz edo latinez. Oraindik gogoratzen naiz..." (eta grekoz hitz egiten hasi zen).

2 Orixerekin ikasi izanaren ohorea. "Gaztelera Orixerekin ikasi genuen asko. Oso euskalduna zen hura, baina hark irakatsi zigun. Itzultzaile eta euskaragilea zen. *Mireia* liburua itzuli zuen. Probentzako idazle batek idatzitakoa da, bere hizkuntzan. *Mireia* izena du liburuak. Orixek itzuli eta *Mireia* jarri zion izena. Zoragarria da liburua, oso euskara ederrean egin, purua eta jatorra. Hiru aldiz irakurria dut. Orixek izan da eta izango da niretzako idazlerik onena".

3 Caracasko batzokian euskaldunei laguntzen. "Ni, soldadutzara ez joateagatik Ameriketara joan nintzen. Espainiara soldadu joan edo Ameriketara ala Txinara, horiek nituen aukeran. Pentsatu ere egin gabe Venezuelara joatea erabaki nuen. Caracasko San Inazio kolegiara bidali ninduten. Han, batzokian egoten ginen, eta hemendik joaten zirenak *kolokatzen* genituen, lanean. Jai Alaiko pilotariak ere baziren han, eta haiekin amista-dea egin nuen. Haiek ere euskaraz hitz egiten zuten, eta arratsal- »



» deetan pasiora joaten ginen, Petal herrira. Petalen okindegi bat zegoen eta hango gizona asko ezagutzen genuen. Gaiztoa zen, ordea. Hark Europara zeto-rrera esan zigun behin. Orduan gauza handia zen Europara etor-tzea. Durangora etorri zen. Hark geroago kontatu zigunez, Duran-gon hiru neska ezagutu zituen, eta haiei Venezuelara joateko lana eta etxea eskaini zizkion. Hala, haietako bat konbentzitu zuen, eta bere etxera eraman zuen. Neskak segituan antzeman zion hura ez zela bere erakoa. Neska famili onekoa zen, garbia. Bide horretan sartu zuen. Neskak egun batean euskaraz hitz egiten entzun gintuen, eta guregana etorri zen, negarrez. Zer gerta-tzen zitzaion galdetu genion, eta Durangokoa zela, eta historia kontatu zigun; ez zegoen gustora han. Denon artean transatlantiko-ko txartela atera genion, eta Du-rangora bidali genuen. Ez genuen haren berri gehiagorik jakin”.

4 Olazko monjen komentua
EAJK konfiskatua. “Olazko monjak ere gure kontrario amorratuak ziren. Andaluzak ziren gehienak. Gu gaztetan monagillo egon ginen komentu hartan. Han, komunistek koartela ipini nahi zu-tela jakin genuen, gerra garaian, baina guk ez genien utzi. Komen-tu sarreran *Confiscado por el Partido Nacionalista Vasco* kar-telajarri genuen, eta atean guda-riak. Zumarragako Argarateren anaiari esan nion monjak zaintze-ra joango al zen, fusilarekin atean jarrita. Komunistak etorri ziren, baina kartela ikusi zutenean alde egin behar izan zuten. Gero, monja haiek izan ziren guregati-



gaizki-esaka jardun zutenak. Gu benetako euskaldunak ginen. Ez genuen inor hil nahi, lagundu baino ez genuen egin nahi, eta halaxe egin genuen ahal genuen guztietan, baita gerra garaian ere”.

5 Zazpi eta erdiko kainoi hura... “Gerra denboran Loiolan egon ginen. Jesuitak bi-daliak izan ziren ordurako Fran-tziara eta Belgikara. Azpeitiko Etxaniz abadea zegoen Loiolaren arduradun. Hark agintzen zuen; meza nagusia noiz izango zen erabakitzen zuen... eta gudari bat hiltzen zigutenean gu joaten ginen kantura. Gazte asko geun-den gerragatik han bilduta baina ez geneukan armarik. Guardia zi-bilen koartel zaharretik hartutako

fusil zaharrak besterik ez; bi tiro bota eta kainoiak gorri-gorri jar-tzen zitzaizkienak. Baina bage-nuen 7 1/2ko kainoi txiki bat eta hura hartuta Mandubi gainera jo-aten ginen. Beasain aldera begi-ra jarri eta tiro batzuk botatzen genituen; horrela, besteek armak geneuzkala pentsatzen zuten... Handik Orioko mendietara joaten ginen eta han ere gauza bera egi-ten genuen guk, baina lgerdo al-dera oraingoan, han erreketek zeuden eta. Arratsaldean berriro kainoia hartu eta Loiolara itzul-tzen ginen. Beldurtu egiten ziren Azpeitira etortzen, armak geneuz-kala pentsatzen zutelako. Etorri izan balira tiro bat bota gabe har-tuko zuten bailara guztia, eta Elgoibarreraino joan beharko genuen”.



FAMILIAN.

Iñaki Goenagak asko estimatzen ditu bere jaioterrria eta familia. Argazkian, ezkerrean goikoan, Ormaetxe baserria; haren beheko argazkian, Iñaki bere anai-arrebekin baserri aurrean; eta eskubian, emaztearekin eta haurrekin.



6 Ihes egin behar Elgoibar aldera. “Halako batean, indar handiz etorri ziren, eta Elgoibarre-ra joan behar izan genuen geneu-kan guztia utzita. Gasolina bi-doiak ezkutatu genituen lur az-pian; hain zuzen, San Inazoren estatua dagoen lekutik Hotel Loiolara bitartean. Elgoibarrera heldu ginenean, Lezo zelako batek armak ekarri zituen. Haiekin egin genien aurre, gogor, eta ziren handik pasatu. Arrate ingu-ruko mendietan ibili ginen. Komu-nistak eta sozialistak zaintzen ez ginen batere fidatzen. Traizioak egiten zizkiguten. Ez zuten guk sentitzen genuena sentitzen. Guk gure herria defenditzen genuen, gure etxea. Haiek, batetik eta bestetik, aitzakia ugari ateratzen zuten”.


Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Ekain
Larrialdiak:
943 15 16 40
ALBAITARI KLÍNIKA



gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97





BI GARAI.

Goiko argazkian, Iñaki Goenaga bere seme Luisekin, 1956. urtean, Ormaetxe baserri ondoan jarritako kantinan lanean ari da. Beste argazkian, Iñaki -eskuinekoa da- bere anaia apaiza Joxerekin ageri da, 1934. urtean ateratako argazkian.



oso tentuz entzun zidaten! Baita txalo pila ederra jo ere! Mitin denetan ez nituen hainbeste txalo jasotzen! Izan ere, ni mitinlaria nintzen, eta ohituta nengoen jendaurrean hitz egitera. Egunean hiru mitin ere emandakoa naiz. Kongresuan, besteak beste Juan Luis Kareaga (Inglaterra bizi zen bizkaitar bat), Apaolaza (donostiar bat) eta Onaindiarekin (honekin bildu nintzen bigarren aldiaz) topo egin nuen".

10 Azal gorriak indioek, guk ez.

"Behin Bilbon egin genuen manifestazioa, Agirrerren tropak han zeudela, bakoitz bere jantziekin, eta han ziren gorriak ere. Ez dakit guk zein kolore genuen, baina faxistek guri ere 'los rojos' deitzen ziguten. Harrapatu gintuztenean Lizarrara eramanez gintuzten, eta trenetik jaistean jende ugari etorri zen gu ikustera eta batek guk entzuteko moduan esan zuen: 'Pero si son como nosotros'. Haiek gu azalez gorriak ginela uste zuten... Lizarratik gora eramanez gintuzten kartzelara, komentu batera. Sarjentu batek bulegoko laguntzaile lanean jarri ninduen. Hilabete asko egin nituen han, eta azkenetakoak izanginenguhandik ateratzen. 'Mañana te llevarán a casa', esan zidan behin sarjentuak. 'A casa? Sí, pero a la casa grande', erantzuten nion nik. Handik egun batzuetara iritsi zen abisua. Bertan irakurri nuen Lizarrako kartzelara eramango nindutela eta horrela esan nion sarjentuari etorri zenean: 'Ha leído? Lea, lea, ya le dije yo que me llevarían a la casa grande'. Han hasi nuen nik peregrinazioa. Urtebete igaro nuen, gero Iruñeko kartzelan beste ►

7 Asturiarrak eta abadeen heriotzak. "Behin asturiarrak etorri zitzaizkigun Euskal Herrira laguntza eske, han Oviedo eraso zutelako. Gu ondo osatuta geunden, gure jantziekin eta fusilekin; batailoia ginen. Hala joan ginen Oviedora eta bertakoek errusiarrek ginela pentsatu zuten; izan ere, guk euskaraz egiten genuen eta diziplina handia genuen. Beste batean, trukean, eurak etorri ziren guri laguntzera baina hori itxura! Eskaleak ematen zuten. Guk gure kapilauak geneuzkan eta sotanarekin ibiltzen ziren; baita abadeak ere. Asturiarrek haiek ikustean, 'aiba, curas!' oihukatu eta bi edo hiru hil zituzten. Gu segituan bildu, eta epaiketa, 'sumarisimo' egin genien. Kapitainak nor izan zen galdetu

eta bertan hil zituen, 'aquí no se mata a nadie' esanez...

8 Euskarako testuak beste aldera pasatzen. "Txarkundia batailoia Hondarribian zegoela norbait nire bila zebilela esan zidaten. Aita Olabide zen (besteak beste, *Kenpax* eta *Gizasola* idatzi zituen), gaztetan gure irakaslea izandakoa. Liburu bat egin zuela eta ibaiaren beste aldera pasatu nahi zuela esan zidan. Beste aldean baten bat zain egongo zela zioen. Liburu bat argitaratu nahizuen, eta horretarako folio sorta hori beste aldera pasatu behar zuten. Orduan italiarren menpe geuden. Halako batean topatu nuen gizon bat, eta hura egingo ote zidan eskatu nion. Oso zaila zela esan zidan,

ezetz. Nik konbentzitzeko 'lagunak ez al gara ba?' eta horrelako batzuk esan nizkion, 'elkarri lagundu behar' geniola... Azkenean konbentzitu egin nuen, eta halaxe pasatu zuen".

9 Kongresu antifaxistaren euskaraz. "Ni Txarkundiako batailoian nengoela, eskutitz bat iritsi zitzaidan, Bilbora joateko esanez. Handik Donibane Lohizunera joan ginen, eta handik Parisera, kongresu antifaxistara. Ni fronteko gudarien ordezkari gisa joan nintzen. Han geundela euskaraz hitz egiten ote nuen galdetu zidaten, eta, jakina, nik baietz. Gerrako gudarien bezala arenga bat botako ote nien eskatu zidaten, euskaraz. Halaxe egin nuen, inork ez zidan ezer ulertu, baina

Lorea Sortak
Koroiak
Lorea Apaingarriak

Etxeetarako
zerbitzua dugu

Tel. 943 81 51 87
Loiolabide, 25

Otamendi

Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

» urtebete, handik Kristo bezala lotu eta beste bi asturiarrekin batera Gasteizera eraman ninduten, handik Bilbora eta handik Urduñara, jesuitek zuten eskola bate-tako sotanora”.

11 Kartzelatik lanera. “Kartzelatik atera eta Lizarran bizi nintzela katalan bat nire bila zebilela esan zidaten. Polizia izango zela pentsatu nuen. Egun batean tinbrea jo zidan, eta hantxe agertu zen. Nirekin hitz egin nahi zuela. Altzarientzako barnizen eta poliesterren fabrika txiki bat ireki berri zutela azaldu zidan. Nire anaiak altzarigintzan lan egiten zuela eta ez zetorrela gaizki bideratuta esan nion. Bere ordezkaria izan nahi ote nuen galdetu zidan. Nik baietz, orduantxe atera nintzela kartzelatik, eta egunero jan beharra neukala. Kartzelakoagatik ez kezkatzeko esan nion, edonor egoten zela bertan. Hurrengo egunean bertan hasi ginen. Kortexa hartu, eta Azpeitira joan ginen arrakasta izan nezakeen leku batera joan nahi nuen. Han jendeak ezagutu egiten ninduen, batzuek gorrotatu ere bai. Ondo hartu gintuzten. ‘Hombre, Ormaetxe!’, esaten zidaten denek, ‘zer habil?’. Nik: ‘Orain arte hotelean egon nauk, besteren kontura, eta orain neuk ordaindu behar diat hotela’. Poliester pila ederra sartu genuen hemen; oraindik ezezaguna zen. Neuk erakutsi nien

denei. Hala esan zidaten: ‘Ezin nahikoa eginda nabilek, hirezako bakarrik egiten diat lan”.

12 Kakaren negozioan. “Ni atera nintzenean ez zegoen kola berorik, eta eskatu egin zidaten. Ruiz de Aldak gauda erabiltzen zuela jaki nuen, eta harengana joan nintzen. Hark ez zekien kola nola egiten zen, eta, beraz, nik gutxi gorabehera esplikatut nion, abereen raspaduraren nola egiten zen. Hobeto jakin zuen, eta egingo zuela esan zidan, ea zenbat behar nuen. Nik egiten zuen guztia kontsumituko nuela esan nion. Hala, estazioan beste izen batekin fakturatu, eta Loiolako estazioara bidali zuen. Nik Loiolako geltokiko nagusia, Maximo, oso laguna nuen. Ormaetxera deitu zuen esanez: ‘Hi, zer fakturatu duk hemen? Izugarritzko kiratsa zagok!’. Kakatan egoten diren euli handi horietakoak ere bazeudela esan zidan. Zirrikietatik atera zen lika, nonbait. Izan ere, izugarritzko beroa ere egiten

zuen eta... Aitari astoa karretillarekin jarrarazi, eta garrotadan joan nintzen. Bidoi horiek karrora igo, manta batekin estali, eta eulimandoak buru gainean bueltakanituela joan nintzen Ormaetxera. Gure aitak egin zidan harrera. *Piura* harekin ikusi ninduean, hala esan zidan: ‘Moteil, orain kakaren negozioan sartu al haiz? Hau da usaina, hau! Zer egin behar diek hauei?!’. Lurrazpian enterratu genituen bidoiak. Inoiz aitzurrean egin gabea nintzen, baina orduan izerdi ederrak botanituen! Lurperatu genituen inguruan zeuden aran arbolak dena zimeldu ziren, kendu egin behar izan genituen. Kaxa haiek oraindik han egongo dira...”.

13 Euskara maletan hartu eta mundura. “Euskarekin munduari buelta ematera joan daiteke. Nik askori esan izan diet hori. Badut lagun bat Ameriketara euskararekin bakarrik joan zena, eta ondo asko konpondu zena. Leku guztietan daude euskaraz dakitenak, eta baita azpeitarrak ere. Txinan ere nire lagun batzuek aurkitu zuten azpeitiar bat. Hiru pilotari zeuden han, eta espaloitiki zihoazela, kuskusean (taxi gisa pertsonak ematen dituzten karroak) gidari zihoan batek euskaraz esan omen zien, ‘ei!, euskaldunak?’, nire lagunek baietz, eta ea bera nongoa ote zen. Haren erantzuna: ‘Azpeitia-

rra’. Nik askori esaten diet: ‘Zauden lekuan zaudela laguntza behar baduzu, kolegioetara joan, eta han galdetu’. Beti egoten da euskaldunen bat, eta haiek esango dizute zer den zuretzat onena. Zenbaitetan fraileen kontra-eta hitz egingo dugu, baina horrela koetan zintzo jokatzeko dute Jende jator asko dago”.

14 Euskaldun izatearen zama. “Euskaldunak beti egon gara elkarrekin haserre. Bai lehen eta bai orain. Beti esan izan dut ETAKoak zenbait gauzatan defenditzen ditudala. Ni ez naiz ETAKo baina, anaiak ditudanez, maite ditut, defenditzen ditut eta ea noizbait elkar ulertzea heltzen garen. Guk inoiz ez genuen hildakorik nahi”.

15 Oroimena, adimena, nahimena. “Euskaldunak eta kristauak arima eta gorputz gara. Arima gorputzaren motorra da eta hiru indar ditu: oroimena, adimena eta nahimena. Burua da horien habia. Oroimenaren bidez gogoratzen ditugu lehen egindakoak, zuk nahi dituzun oroitzenak ekartzen dizkizu. Adimena ulertzea da; hiru eta bi bost direla esaten duen indarra. Eta nahimena, nahi dena egiteko aukera ematen duena da. Parabolak direla esango lukete hainbatek, bai, baina egiak dira”. ◀

Datua ▶
100
URTE LASTER.
Mendea betetzear da Iñaki Goenaga, 100 urte beteko dituelako urtarilaren 11n.

LUBA
- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA
Enparan kalea, 45
Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

KIRURI
JATETXEA
Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tfn.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62

ERAKUSKETA:
Eliz kalea, 12 - beheka
Tfn.: eta faxa: 943 81 12 12
BILTEGIA:
Landeta Hiribidea, 19
Tfn.: 943 15 16 66
20730 AZPEITIA
E-mail: iturralde@euskalnet.net
Bainuak eta bainu osagarriak
ESKANTZEN DUGUNA
Iturgintza
Berogailua, klimatizazioa, EUB eta beraien mantenu lanak
Gasa (EG-IV kategoria)
Erregai likidoak

AKZOTIA
- Dieta pertsonalizatuak
- Konsulta naturista
- Elikagari biologikoak
- Kirolarientzat elikadura
- Kosmetika naturala
Jose Artetxe, 8 Telf: 943 81 27 50

ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRIKAK
Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA
Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

Literatuztaren 3. zenbakia kalean ▶



III

Literatuzta Taldeak beste zenbaki bat kaleratu du: *III*. Aurkezpena Iturri Txikin egin zuten, ostiralean.

3. zenbakiaren ezaugarriak.

▶ Prosa eta poesiako testuak nagusi dira. Aitor Arana, Harkaitz Cano eta Asier Serrano idazleei elkarriketak.

Tirada eta banaketa.

▶ 1.000 ale.

▶ Uztarriako bazkideei etxera banatu zaie. Gainontzekoek *Literatuzta* nahi izanda, euro batean, Eklipsen eta Uztarrarian.

Partaideak.

▶ Ion Pozo, Olatz Prat, Iñaki Olaizola, Xabier Borda, Aitor Bengoetxea, Itsaso Andres, Iosu Salegi, Mikel Aierbe, Fernando Morillo, Naiara Altuna, Arantxa Aldalur, Eneko Azpitarte eta Begoña Amezua izan dira.

Abuztua oporretan

Abuztuan oporrak izango ditu Uztarriak; beraz, ez da aldizkaririk izango urrira arte. Webgunea irailean hasiko da berriro martxan.

Festetako txosna

Saninazioetan txosna jarriko du elkarrekin, eta laguntza estimatuko da.

Sari banaketa

Uztarriako Pourra-ko irabazleek San Inazio bezperan jasoko dute saria. 141 partaide izan dira (errekorra).

martxan da herriko KULTUR KARTELDEGIA

Uztailaren 7an jarri zuen Kultur Karteldegia martxan Uztarria Kultur Koordinadorak. Karteldegia plazan dago kokatua, lehen Zelaitxo zinemaren karteldegia zenaren lekuan, eta bertan herriko taldeen eta Azpeitian izango diren beste hainbat ekitaldiren berri emango da.

Karteldegia hamabost egunean behin berrituko da hasiera batean. Baina sarriago berritu behar dela ikusten bada, sarriago berrituko da.

Talderen batek karteldegian bere ekintzen berri



Kultur Karteldegia plazan dago. UZTARRIA

eman nahi badu, ez du Uztarriaren egoitzara deitu (943 15 03 58) edota kultura@uztarria.com helbidera idatzi besterik.

Baina karteldegia Uztarriak martxan duen ekimenaren barruko ekintza bat besterik ez da. Izan ere, besteak beste, kultur direktorioa, urteko programazioa eta III. Kulturaldia egingo ditu talde guztien partaidetzarekin.

▶ **ESKAERA.** Uztarriak Udaleri karteldegia jartzeko eskaria 1998. urtean egin zion, baina garai hartan ezinezkoa izan zen ekimen hori aurrera eramatea. Esan bezala, aurten, uztailaren 7an, jarri da lehenengo aldiz herriko kultur ekintzen berri bertan. ◀

egin zaitez bazkide UZTARRIAN

Zure datuak Uztarriari helarazteko aukerak:

▶ Julian Elorza Hiribidea 4, beheka eskubia (Azpeitia, 20730) ▶ 227 posta kutxa, Azpeitia
▶ uztarria@topagunea.com ▶ Telefonoa (eta faxa): **943 15 03 58** ▶ www.uztarria.com

IZEN-ABIZENAK ▶

HELBIDEA ▶

TELEFONOA ▶

KONTUKO 20 ZENBAKI (harpidedunek ez*) ▶

NAN edo EHNA ▶

HERRIA ▶

E-MAILA ▶

BAZKIDEAK ▶

Urtean. 24 euro.

Jasoko dituzu.

- ▶ Uztarria herri aldizkaria.
- ▶ *Imanol Elias* eta *Joxe Takolo* biografiak.
- ▶ *Azpeitiko efemerideak*, erdi prezioan (nahi baduzu).
- ▶ *Mendi gida*, erdi prezioan (nahi baduzu).
- ▶ *Literatuzta*.
- ▶ *Urola-Kostako Hitza*.

*HARPIDEDUNAK ▶

Uztarria diruz lagundu nahi ez baduzu.

Jasoko dituzu.


- ▶ Uztarria herri aldizkaria.
- ▶ *Urola-Kostako Hitza*.

4 971


bazkide gara
dagoeneko
Uztarrarian;
eskerrik asko
denei

► Testuak: **Ihintza Agirretxe** ► Argazkiak: **Fidel Olaizola**

Lehen ▶



Orain ▶



ITURRI TXIKIAREN ALDAKETA.

Goi-goiko irudian Santiago kalean dagoen Iturri Txiki 1973. urtean zegoen moduan ageri da. Garai hartan iturria lurretik oso gertu eta harriz inguratuta zegoen. Ordutik asko aldatu da, bai ingurua, baita iturria bera ere. Ez du gaur egun dagoen iturriaren antz handirik. Orain, iturriaren ondoan burua falta duen estatua dago, eta urak azpeitiarroï ezizena ematen digun zapo batetik irteten du.

▶ Testua: Ihintza Agirretxe ▶ Argazkia: Nerea Uranga

Efemerideak ▶ hilabetea



Urola Kafetegiak ordutegia aldatzeko baimena eskatu zuen.

herri hobe BATERANTZ

Herria hobetzeko edo bertan bizitzea errazagoa egiteko ahaleginak egiten ziren

▶ Testuak: 'Azpeitiko efemerideak' liburua (Imanol Elias-Uztarria)

1573-ABUZTUAK 4 ▶

Isuna. Gauean etxetik kanpo inor ez ibiltzeko ordenantza berria onartu zen. Ondorioz, egun horretatik aurrera, San Miguel egunera arte gaueko hamarretatik aurrera kalean ibiltzea debekatu zen, eta San Miguel egunetik maiatzeko bazko eguna bitartean, berriz, bederatzietatik aurrera. Norbaitek emandako agindua ez betez, hiru errealeko isuna eta lau eguneko kartzela jasoko zuen, eta, gainera, etxe, baratza, sagasti edo soroetan egin zezakeen kaltea ordaindu beharko zuen.

1891-ABUZTUAK 5 ▶

Baimenak. Inazio Mari Artetxek, berea zen Urola Kafetegia gaueko hamaikak artean eta egun berezietan hamabiak bitartean zabalik izateko eskatuz idatzitako instantzia, gobernadoreak Udalari bidali zion, erabakia hartzeko eskatuz. Ordenanatzek kafetegi eta tabernak gaueko hamarretan itxi behar zirela agintzen zuten eta Udalari aldaketa egitea ezinezkoa zitzaiola erantzutea erabaki zen, nahiz eta gogoia izan beste orde-



Aratz-errea auzoa.

nantza bat prestatzeko, batak eta besteak ezberdinduz.

1828-ABUZTUAK 31 ▶

Obrak. Aratz-errekako eliza eta apaiz etxeko errematerako baldintzei beste batzuk eranstea erabaki zen. Horrela, errematean hartzen zuenak urtea amaitzerako hasi beharko zuen lanean, eta, gutxienez, elizako atearen altuera emanda izan beharko zuen. Baita hurrengo urteko San Miguel egunerako guztia bukatuta izan ere, beti emandako itxura gordeta eta agindutako materiala erabiliz. ◀

Pertsonaia ▶

AGERRE I.a.

Luis Lopategi, *Agerre I.a* ezinenez ezagunagoa, hil zen 1969ko abuztuaren 2an. Bere sasoi onenean izan zenean, hark ez zuen kontrariorik izan harri kubikoa altxatzen. Aurten, 35 urte beteko dira, beraz, harri-jasotzaile handia hil zela.



Datua ▶

99

JASOALDI.

1954. urteko abuztuaren 22an Juan Ibarguren Manterola eta Florian Olaizola *Txikerra* neurtu ziren hamarreko harri kubikoarekin, hamar minutuko hiru saiotan. Lehenenak lau jasoaldiko abantaila zuen, eta biek 99 jasoaldi egin zituzten.

Argazkia ▶



BASAZABAL ETXEAREN EGOERA.

1974ko abuztuaren 8an Basazabal etxea egoera larrian zela eta horren berri Monumentu Historiko eta Artistikoen Probintziako Batzordeari eman zitzaiola esan zuen alkateak. Erantzunik jaso ezean, Bixente Gibert arkitekтуari txosten bat eginarazi zitzaion.

Kontua da... ▶

Martxa ezerezean



Imanol Elias
Odriozola

Giro nahasia zen herrian 1933. urtean, herriko jaiak ospatzeko unea iritsi zenean. Aurreko urtearen amaieran 7.946 biztanle ziren Azpeitian, eta asko langabezian. Soldataz gain, janari beharrea zeudenez langileen sendi asko eta asko, Euskal Estatutua osatu nahi zen, euskarari beharrezko bultzada eman, Errepublikara garaitu zen...

Gauzak horrela, San Inazio bigarrenean Loiolan ospatu behar zen elizkizunerako, Sabino Arana eta Goiri jaunak sortutako Iñaki Deunaren martxa abes-
tea erabaki zen elizkizuna amaitzean, baina azkenean oztopo batzuk zirela eta, ezerezean gelditu zen asmo hori. Eusko Jaurilaritzako herrialde lehendakaria zen Inosentxio Larrañagak kexa idatzi bat bidali zion Udalari eta beraren berri jakingo zuten agintariek abuztuaren 8ko udalbatzarrean.

Idatzian Larrañaga jaunak garbi agertzen zuten

debekua apaizek eman zutela. Horrela, Euskal Herriari zioten gorrotoa agertu zuten eta euskara erabat zapaldu uten. Hala, honoko erabakiak hartze-
ra derrigortu nahi zuen berak zuzentzen zuten herrialdeko batzordea:

- ▶ 1. Euskarari ez ezik, abertzaleen sentimenduei eginiko neurri gabeko zapalketa salatzea.
- ▶ 2. Agintariei eskatzea protestarekin bat egitea.
- ▶ 3. Korporazioari erregutzea bertako kide bat izendatzea Apezpikutzarako protesta komisioan izan zedin.

Garbi zuten nonbait, agintariek nolatan jokatu behar zuten, eta udalbatzar berean hartuko zen erabakia aho batez, Eusko Jaurilaritzak eginiko eskaerari erantzuna emanez: bat egitea protesta horretan eta Udalak alkatea izendatzea komisioko kide izateko, Apezpikutzara protesta idatzia emateko.

Garai bateko Azpeitia ▶ Gloria Odriozolak kontatua

Aratz-errekatik **AZPEITIRA**

Gloria Odriozola Aratz-errekan jaio zen eta ondo ezagutu zituen garai batean hango kontuak. Ez ditu ahaztu orduko dantzak

▶ Testua: Ihintza Agirretxe

Gloria Odriozola, Jubilatuen batzordean sartu berria da. Oraitxe hasi da lehen aldiz lagunekin jubilatuek antolaturiko egun-pasako irteeretara-eta joaten. Baina gaztetan ere ibiltzen omen zen alde batetik bestera.

Aratz-errekako Ibarrola baserrian jaioa da hura. "Baserri giroan bizi ginen gaztetan. Uda, Izarra hotelean edo beste taberna batean lanean pasatzen nuen eta negu partean bueltatzen nintzen etxera", hasi da azaltzen. "Tabernan lanean hasi aurretik, eskola utzi eta izebabaten etxean neska-me egon nintzen, nire ama-punta-koaren etxean. Baina ordurako

baserriko lanean nekatuta nengoen".

Baina dena ez zen lana izaten, festarako beta ere hartzen zuten. "16 urterekin etorri nintzen lehen aldiz Azpeitira festara. Eta orduan ere bezperetako meza entzunda etortzen ginen, eta bederatzietarako etxean egon behar izaten genuen, gainera".

“Santaisabeletara, artoa jorratuta bazegoen, joaten ginen, eta belarrak bilduta bagenituen, berriz, Kizkitzara”

GLORIA ODRIOZOLA ▶ erretiratua



Garai bateko erromeria.


Aurpegia aldatzen zaio, ordea, San Isidro jaiez, Aratz-errekako jaiez hitz egiten hastean. "Sanisidro jaiak bereziak izaten dira niretzat. Orain ere ez dut batere huts egiten. Gaztetan festak oso ezberdinak izaten ziren. Orduan igandero joaten zen soinu-jole bat bizikletaz auzora, eta plazan aritzen zen. Guk, hura han zen bitartean dantzaldi ederrak egiten genituen. Bi-hiru ordu erraz pasatzen genituen dantzan gelditu gabe. Garizuman, berriz, ez zen izaten dantzaldirik. Orduan, elizara joan eta kantatu baino ez genuen egiten".

Urtean bi ibilaldi egiten zituen familia osoak. "Zumarragara, santaisabeletara, artoa jorratuta bazegoen, joaten ginen, eta belarrak bilduta bagenituen, berriz, Kizkitzara joaten ginen irailean. Ume guztiak gurasoei joaten ginen egun-pasa. Horiek izaten ziren gure urteroko irteerak".

Orain, berriz, alde batetik bestera dabil: sanferminetara, Iratxera, Xoxotera... Ez du aspertzeko aukerarik. ◀



Hitz gezidunak ▶



* Herriko baserria

Pasarte kodetua ▶



Imanol Elias idazle azpeitiarraren pasarte bat (*Amuko zubia*, 1989) azalduko zaizu ondorengo lauki guztiak bete ondoan. Joko honetan, zenbakiak hartu dute letra edo hizkien ordea. Letra bat, zeinek bera, hartzen du gehienez zenbaki bakoitzak, eta batzuetan ez dira letra guztiak azaltzen. Zenbaki batzuei dagozkien letrak eman ditugu lagungarri gisa.

I				E			D		
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
A			R				N		
11	12	13	14	15	16	17	18	19	20


6	7	14	1	11	13		4	6	14	14	1	14
2		6	14	6		16	2	16	2	14		15
2	13	2		10	7	6	18		1	19	10	11
1	18	11	14	6	18		11	7	14	20	6	16
1	11		6	19	11		11	19	5	6	9	6
18	11	3	9	1	11	14	6	18		2	18	9
2	14	6	18		16	2	16	2	14		6	13
1	18		10	1	2	19	6	18		4	1	9
	1											
6	11	14	1		1	9	1	6	13		13	11
14	16	11	14	1		19	1	14	11	13	11	

Soluzioak ▶

Non dago irudi hau? ▶

HITZ GEZI DUNAK

R	A	Z	I	●	R	A	●	U	T	O	●
E	R	●	O	K	A	B	A	T	●	A	M
●	I	K	●	A	●	A	N	E	I	S	●
K	●	A	E	L	E	●	B	E	L	B	●
A	K	E	O	●	A	M	A	R	A	X	●
A	L	B	A	Z	I	T	S	A	G	A	●
A	N	U	S	A	I	T	A	G	●	F	●
O	R	●	K	A	R	H	●	●	●	●	●
K	A	O	S	●	A	G	A	L	A	●	●
●	Z	●	I	●	M	●	N	●	●	●	●



PASARTE KODETUA

bideari idiek, kargari tiraka", Imanol Elias

gia eta atsedena idiararen ondoren, gogor ekin zitoten "Eunak berriro ere gogor joko zuen itzainaren aurre-

UZTARRIAREN UZTAILEKO ARGAZKI LEHIAKETA

zer erakin da hau?



Enparan Dorretxea



irabazlea



Miren Garmendia Uztarriako bazkidea izan da argazki lehiaketako 53. irabazlea. **Oinkariko** erosketa txartela irabazi du sari gisa. Argazkian, Miren —eskubian— eta Oinkari dendakoa.

ERANTZUTEKO EPEA ▶

Irailak 20 (astelehena)

NORA BIDALI ▶

Julian Elorza Hiribidea 4, behea

ZER TOKI DEN ADIERAZI ▶

ZURE IZENA / TELEFONOA ▶

IRABAZLEARI SARIA ▶

Erosketa txartela (Romaes)

PARTE HARTZEKO

BALDINTZA ▶

Uztarrarian bazkide izan behar da

AZKOITIA

ERLOJU
KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12



anare
ileapaindegia

depilazioa
makilajea

Barrenetxe, 7
Tel.: 943 15 15 53



domus

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak
egiten dira



81 53 35

ATC TORREALDAY
anolakuntza kontrolatzaile

Iberotarren plaza, 7 behea
Tfnoa: 943 15 05 09
Faxa: 943 15 16 74
azpeitia@atctorrealday.com

Zaindu ▶ Gizenak

Julian
Bereziartua



Zibilizazioak zenbait arau eza-
rri ditu gorputzaren pisuari
buruz, kontuan hartzekoak, baina
gehiegi estutu gabe. Kontu egin
ezazue nolako mundua izango
zen pertsona gizenik gabe. An-
tzeko zerbait gertatu zen
1941ean. Inorke ez zuen pisu han-
dirik, salbuespenak salbuespen.

Gero bizimodu lasaia goa etorri
zitzaigun eta beste muturreko
egoerara pasatu ginen. Gehie-
gizko pisua dutenek sarriago iza-
ten dituzte bihotzeko arazoak.
Bihotza, ureztatze-bonba denez,
zenbat eta pisu gehiago orduan
eta gehiago nekatzen da.

Sabeleko koipeak sabelaldeko
presioa sortzen du eta honek ur-
daila estutzen; ondorioz, elika-
gaien errepikapena sortzen da.
Eskeletoaren artikulazioak kilo
gehiago jasan behar izaten ditu
eta horrela sortzen dira artrosiak
eta higadurak. Gibelak eta giltzu-
rrunek ere asko sufritzen dute.

Loaren apnea-sindromearen
faktoreetako bat ere izan daiteke;
gure ezarriaren goiko zatia erla-
xatu eta noizean behin kolapsatu
egiten da, lo-orduetan, horrela,
aireari ez dio pasatzen uzten eta
gaueko atsedena galtzen dugu.

Komenigarria da lodiek pisua
galtzea, baina gehiegi estutu
gabe. Arazoaren sorrera aurkitu,
dieta egokia egin eta hori nahikoa
ez bada, baloi intragastrikoaren
froga egitea gomendatuko nieke.

OIHANA ALDANONDO ▶ bidaia agentziako langilea

Bisitatzeko herri bat?

Grezia.

Oporretarako leku bat?

Toki asko.

Bakarrik edo

lagunekin?

Lagunekin.

Mendia ala itsasoa?

Itsasoa.

Bisitatu duzun azken

lekua?

Lanzarote.

Eta bisitatuko duzun

hurrengoa?

Zanzibar (Tanzania).

Lagunei gomendatuko

zenioken leku bat?

Kuba.

Non bizi da gizakia

ondoan?

Norbera bere jaioterrian

dago ondoan.

Bidaiazteko gauzarik

garrantzitsuena?

Argazki makina.

Trena, hegazkina,

autobusa... non?

Hegazkinean.

▶ Testua eta argazkiak: Ihintza Agirretxe



Abizena ▶ Zabaleta

Armarria.

Armarri handia-
ren barruan,
beste lau armari
txiki ditu. Armari
txiki horiek fondo gorrian zila-
rrezko gurutzea dute. Armari
txikien artean, hiru panel berde
daude; bi, armariaren aldamene-
tan eta bestea, puntan.

Banaketa semantikoa.

▶ Zabal + eta.

Esanahia.

Zelai zabalekoa lekua.

Abizenaren kokapena.

▶ Azpeitia.

▶ Azkoitia.

▶ Bergara.

▶ Tolosa.

▶ Leitza.

▶ Antzuola.

▶ Oñati.

Abizenaren hedapena.

▶ Azkoitia (1688, 1711, 1769,
1773, 1775).

▶ Arrasate (1655).


▶ Hondarribia (1766).

▶ Donostia (1633).

▶ Oiartzun (1594).

▶ Eskoriatza (1759).

▶ Oñati (1617, 1754).



Esandakoa ▶

“Ateak irekita daude,
hizketan jarraitzeko
asmoa dago. Helburua
Udalbiltza bateratu bat
antolatzea da”

MIREN ODRIÓZOLA ▶

Udalbiltzako kidea

“Realean gelditzeko
ilusioz itzuli naiz.
Gogo faltarik ez dut
baina azkeneko hitza
entrenatzaileak dauka”

MIKEL LABAKA ▶

Realeko jokalaria

Zenbat ▶

600

SINADURA.

Erretiratuek euren eskubide
ekonomikoen alde sinadura
bilketa jarri zuten martxan,
eta 600 inguru bildu zituzten.

kitzika joyería

Brilanteak - Urre Zuria eta Oria - Festina Urrea

Pastorkua Tabernaren ondoan

Jose Artetxe, 13 - Tel. 943.15.76.13 - AZPEITIA

ARGIAK

KONPONKETA LANAK

Erdi kale, 4

Tel. 943 81 62 84

Gertuko pasadizoa ▶

San Inazio estatua EGITEN

‘Lagun Onak Mendi Bazkuna-50. urtemuga’
liburutik hartua ▶ 1996 ▶ Egileak: Joxe Luis
Aizpuru eta Enekoitz Esnaola



Xoxoten San Inazioren estatua eraikitzen.

SAN INAZIO ESTATUA ▶ herritarren partaidetza (54. orriadea)

Estatuaren oinarritzko ideia bilbotarrena izan zela ukaezina da [1956an inauguratu zen]. Beraiek egin zituzten lehen urratsak, baina Azpeitiko herriaren partaidetza ezinbestekoa izan zen. 20 metro neurtzen dituen obrak, nahiz eta eskultura berak bost neurtu, lan gogorra eman zien. Mendizaleak, baserritarrak eta jesuitak lanean aritu ziren pare bat hilabeteetan San Inazioren heriotzaren urtemuga ospatzeko egindako estatuan. 200 zakuka poran baino gehiago behar izan ziren estatua altxatzeko eta inguruko baserritarren laguntza ezinbestekoa izan zen. Baserritarrek 45 bi-

daia egin zituzten euren idi pareekin materiala Xoxoteraingo altxatzeko eta beste 25 bidai asto eta mandoarekin. 52 lagun aritu ziren orotara lanean laguntzen. Lagun Onak Elkarteko hamar boluntario ere aritu ziren 14 igandetan lanean. Materialari dagokionez, 38 metro kubiko harri xehatu zituzten.

Takolo baserrikoak, Egurtzakoak, Arantzetakoak, Goiko Saletzekoak eta abar aritu ziren lanean euren idi pareekin. “Periko Iparragirre Agite, Sokin eta Agerretzeko mutilak aritu ziren obra hasi eta bukatu arte lanean euren astoekin”, esaten du Joxe Eizmendi Txapel-ek. Hiru baserritar hauekin batera Joxe Txapel eta Campos langile bilbotarra aritu ziren soldata

pean. Damasok bere aldetik, bi langile eskaini zituen obran laguntzeko astebetez. Haez gain jende asko aritu zen laguntzen: Miguel Arregi, Joxe Azpitarte Irujo, Akilino Eizagirre, Urbano Azkue (sukaldari modura) eta beste asko. Soldatapean lanean ari zirenei Inazio Azkune kontratistak ordaintzen zien eta berari berriz, Bilboko kongregazioek. “Beheko putzutik ura hartu, Antzeluz baserriko makinak puskaturiko harriarekin nahastu eta porlana bota”. Horrela deskribatzen du Txapelek eguneroko lana.

Bilbotik kamioietan ekartzen zen materiala Azkunek baserrian zuen biltegian gordetzen zen eta pixkanaka idi pareekin gora igo. ◀



Ondo pasatu
festak!



AIZPURU AUTOAK

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA
aizpuru@aizpuru.net



kutxa

gizarte ekintza

Telefono zenbakiak ▶

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulategia	81 51 00
Anbul.-larrialdiak	81 12 01
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztartaria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara (Herriak)	943 31 69 99
Deia (berriemailea)	943 72 57 75
DV (berriemailea)	943 15 09 94
Argia	943 37 15 45

LARRIALDIK

112

Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemai)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
Habea	15 72 00 (138)

EA	81 00 11	Antxieta Etxea	81 35 40
PSE-EE	15 72 00	Kontseilua	943 59 12 00
PP	15 72 00		

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztartaria Kultur Koor.	15 03 58

IKASTETXEA

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbia.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Hitzeko Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	665 72 39 79

Farmaziak gauez ▶ abuztua

1-11-12-13-23-24

Jaen (Azkoitia).
943 85 06 60

4-16-21-22

Beristain (Azpeitia).
943 81 19 49

2-7-8 19-31

Zulaika (Azpeitia).
943 15 03 34

6-18-30

Garzia (Azpeitia).
943 81 12 74

5-17

Etxebeste (Azpeitia).
943 81 59 74

10-11-14-15-25-26

Azpiazu (Azkoitia).
943 85 29 89

3-20

Aranburu (Azpeitia).
943 81 13 50



TURISMO BULEGOA.

Uzatilaren 7an ireki eta urria arte irekita izango da Loiolan Turismo bulegoa. Aurten lehen aldiz basilika aurrean jarri duten etxola batean egongo da. Bi lagunek egiten dute lan, eta asteartetik igandera 10:00-13:00ak bitartean eta 15:30-19:00ak arte egongo da irekita.

Garraioa ▶

ALDALUR

85 27 18

EUSKO TREN

15 06 77

GUIPUZCOANA

85 11 59

PESA

21 26 99

PIPER ELK.

85 25 87

TAXIAK

81 13 07

Ateak zabalik ▶

UDALETXEA

▶ Asteguna:	09:00-14:00
▶ Larunbata:	itxita

UDALTZAINGOA

▶ Egun osoz irekita egoten da

ANBULATEGIA

▶ Egun osoz irekita egoten da

IGERILEKUA

▶ Astelehena:	itxita (16-31ra gimnasioa irekita)
▶ Beste astegunak:	itxita (16-31ra gimnasioa irekita)
▶ Larunbata:	itxita (16-31ra gimnasioa irekita)
▶ Kanpokoak:	11:00-20:00 (aste osoan irekita)

KIROLDEGIA

▶ Astelehena:	itxita
▶ Beste astegunak:	itxita
▶ Larunbata:	itxita

UDAL LIBURUTEGIA

▶ Astegunak:	itxita
▶ Udan (abuztuan itxita) eta Gabonetan:	astegunetan: 09:00-13:00

ZAPO TXOKO

▶ Asteartea-ostirala:	irailaren 13 arte itxita
▶ Larunbata:	irailaren 13 arte itxita

EMAITZ, C.B.

Jose Artetxe, 11 behea ♦ 943 813345

Otola

Jose Antonio Agirre 7
943 81 13 66

Mayko's

KIROLA • MODA • LENTZERIA

AZPEITIA
OLAZKO AMAREN PLAZA
943157665

Babesa

gazte moda

ORDULARI

Jose d e Artetxe, 10
Tel. 943 81 52 44

aitzaki kirolak

Jose Antonio Agirre plaza, 4 ♦ Tel.: 943 15 07 38

Larrañaga

kirolak

Arana kalea, 3
Tel.: 943 8113 65

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

ZALDIKO

ESTATIKA ETA OPARIAK
SALBE AUZOA 15, BEHEA
TEL. 943 15 12 75

IZARRAITZ

HIGIIZINEN AHOLKULARITZA

PISUEN SALMENTA, ALOKAIRUA ETA ESKUALDATZEA,
LOKAL KOMERTZIALAK ETA BASERRIAK,
PABILIOAIK ETA LURRAK

Jose Artetxe kalea 8 ♦ Tel.: 943 81 67 77 - 943 81 68 12
inmobiliaria@izarraitz.com ♦ www.izarraitz.com

SALBE AUZUNEA 35
TEL. 943 15 12 87
20730 AZPEITIA

orain
argazkigintza digitala
ere lantzen dugu

urke

ARGAZKI ETA BIDEO ERREPORTAIK

Ikus Optika

San Bartolomé, 10
Tel.: 943 74 37 34
20870 ELGOIBAR

Jose Artetxe, 10
Tel. 943 15 75 74
20730 AZPEITIA

ikusoptika@euskalnet.net

LEGARDA

SUKALDEAK - BAINUAK BERLONI

Arana, 7 - 20730 AZPEITIA - Tel.943 812 309 - Faxe 943 157 378
e-mail: koop@legarda.com - www.legarda.com

ODONTOLOGI
OROKORRA

- > Bideo bidezko diagnostikoa
- > Erradiografia digitala
- > Hagin-ateratzeak (azkenaginak...)
- > Endodontzia
- > Peridontzia
- > Garbiketa
- > Aho erreabilitazioa



HORTZ KLINIKA

Antonio Rafaniello

389 Koleg.

Enparan 8 - 1 Tel.: 943 81 67 36

ODONTOLOGI
ESTETIKOA

- > INPLANTEAK
- > Koroak
- > Ahoko zubiak
- > Karilak
- > Hortz zuriketa
- > Protesi finkoak eta mugikorak
- > Odontologi tratamendu integralak



IXIAR SAN JUAN



ESTETIKA ZERBITZUAK

Loiolabide 19, behea

943 81 02 17



ondo pasatu festak!

ONDO PASATU FESTAK!

Zuri Beltz

UBRIKEN EGINDAKO
ZUZENKO LARRU
SALMENTA.

- Larru eta harizko jostundegia
- Poltsa eta gerrikoak
- Larru landuak
- Opari gaiak

a

arantxa haur jantziak

jose de artetxe kalea, 11
☎ 943 81 24 29
fax 943 81 61 32
20730 azpeitia
gipuzkoa

Nuritz

oinetakoak

abuztuan
goizetan
zabalik

Urbitarate, 8
943 15 78 11

DIMONI

ukabi

informatika

zure informatika denda


Salbe Auzunea 39, behea
Tel.: 943 15 01 01 Faxes: 943 15 00 01
www.ukabi.com

SAN INAZIO JAIZORIO NT SUAK!

BEATRIZ MENDIZABAL ▶ taxista

Euskal Herritik ez dinat irteten normalean”

▶ Testuak eta argazkiak: Ihintza Agirretxe



TXIKITAKO AMETSA.

Beatriz Mendizabalen txikitako ametsak ez zuen zerikusirik autoekin: “Pelukera izatea nahi ninenan. Asko gustatzen zitzaidan lanbide hori”. Baina ez zuen aukerarik izan: “15 urte nituela hasi nituan lanean eta ezin ikasi, hortaz. Eta gaur egun ez niken lanbide hau aldatuko”.

Beatriz Mendizabalek hiru urte daramatza bere taxian herriko jendea alde batera eta bestera eramaten.

Nolatan haiz taxista?

Taberna bat ginenan eta hura itxi ondoren kamioiko eta autobuseko karnetak atera nizkinean eta hauetako batean lanean hastea pentsatzen ninenan. Baina jakin ninenan taxista batek bere lekua utzi egingo zuela, eta harekin akordio batera iritsi eta kotxea eta geltokia erosi nizkionan.

Kamioiko eta autobuseko karnetak, nolatan?

Txiki-txikitatik gustatu izan zaidan txofer egitea, eta kamioia eta autobusa gustatu izan zaizkidan.

Normalean nora eramaten dun jendea?

Normalean Euskal Herritik oso gutxi irteten dinat, baina tokatu izan zaidan hori ere. Gehienbat hementxe herri inguruan eta aireportuetara egiten ditinat bidaia gehienak; Miarritzera, Bilbora, Hondarribira...

Nolako jendea ibiltzen dun?

Denetatik; enpresa inguruko jende asko, eta geltokian edonolako jendea ibiltzen dun.

Orain festak zetozen. Lan asko izaten al da?

Bai, saninazioetan-eta gauez lan asko izaten dun. Nik normalean gauez, saninazioetan baino ez dinat egiten. Gazte jendea ibiltzen dun egun horietan, eta gauean hasi eta goizeko hamarrek aldera arte egiten dinagu lan.

Izango dun pasa dizorik.

Egia esan, ez zaizkidan gauza bitxi asko gertatu. Gogoratzen dinat lanean egin nituen lehen saninazioetan mutil batzuk Zumarragara eramatea tokatu zitzaidal. Haietako bat bide osoan lata ematen ari zunan; “joe, emakume batekin!...”. Azkenean, nazkatu eta bide erdian esan nionan nahi bazuen hantxe utziko nuela. ◀

1938 ▶ urolako trenari TXARTELA

Francok gerra irabazi eta gutxira artean elebietan zeuden Urola treneko txartelak, eta euskarazkoak kendu egin zituzten; gauzek ez dute hobera egin

▶ Testuak: Josu Azpillaga ▶ Argazkia: 'Urolako trena 1926-1986' liburua



1986 ▶ artean erdara hutsean

Elkarri-ren aldizkarian, 105. zenbakian, *Habla en cristiano* izeneko erreportaia dator. Euskara Kultur Elkargoak Iruñean egin zuen erakusketa bati buruzkoa da erreportaia, eta erakusketak, historian zehar euskarari egin zaizkion bazterketen berri ematen du. Bertan Urola trenarekin zerikusia duen pasadizo bat kontatzen da.

1938an Urola trenerako baziren bidaia-txartel elebidunak, euskaraz eta gazteleraz. Zenbaiti euskaraz ere egotea askorik gusatu ez eta gutun haxe bidali zioten Urola treneko arduradunari: *"A Ramón Pagola, del Consejo de Administración del Ferrocarril del Urola. Comunico a esta jefatura que el billete editado en primera clase y que por la inscripción en vascoence por uno de sus lados, dispongo de usted el cese inmediato de su cargo de director del ferrocarril y que quedará suspenso de empleo y sueldo hasta tanto quede aclarado el motivo por el cual están en curso esa clase de billetes. Además, queda prohibido desde ya que esos billetes se sigan emitiendo. 5 de septiembre de 1938, Irún, III Año Triunfal"*.

Gutuna jaso ondoren, haxe da Urola Trenbidearen Administrazio Batzordetik Alfonso XVII.a eta Primo de Rivera generalari helarazi zitzaizen telegrama: *"Hecha esta impresión antigua de los billetes, los sucesivos no han llevado esta doble inscripción y a la vista tenemos los billetes impresos en diciembre del 36, inmediatos a la liberación de esta zona, que sólo tiene la inscripción en castellano. Ahora bien, los billetes para servicio local son los primeramen-*

Bota lasai ▶ (www.uztarria.com/euskara)

Ertzainak, berriz ere

Aurreko batean idatzi nuen nola azpeitiar gizon edadetu bati ertzain batek, harro, gizonak sano-sano euskaraz erantzutean, espainolez hitz egiteko esan zion, "porque estamos en el imperio. Estamos en España".

Hona hemen *Ertzainak eta euskara*-ren beste kapitulu bat.

Beste azpeitiar bati gertatu zaio, honek berak kontatu didanez. Auto-stop egiten ari zen, inguruko herri batean, eta zein geratuko eta Ertzaintzaren autoa. Bi ertzainek irten zuten bertatik eta mutilari ea (Espainiako) nortasun agiririk bazuen galdetu zioten, eta ea nora zihoan, eta ea lanik egiten duen, eta soldataz, eta ea zergatik ez zuen hartu autobusa Azpeitira joateko, eta... Hori dena, espainolez. Mutilak gogoia eduki zuen ertzainei berari euskaraz hitz egiteko esateko, baina ikusita zein zen ertzainen jarrera, atzera egin zuen, "bestela isuna" jarriko ziotelako, ez baitzuen Espainiako nortasun agiririk, eta, jakina, ertzainek Espainiako nortasun agiria nahi zuten.

Mutil hori ez da ertzaintzat susmagarria (eta hori oso ondo dakite ertzainek beraiek), ez ezer. Eta salaketa hau irakurtzen dutenek jakingo balute mutil hori zein den, benetan aho-zabalik geratuko lirakeke ertzainak zeinen-

gana eta nola zuzendu ziren jakitean.

Hori aparte utzita, eta Euskararen atal honi gagozkiola, berriz ere garbi geratu da EAEko estatutuak ez duela balio izan Ertzaintza polizi publikoa euskalduntzeko, ezta euskalduntzen joateko ere, eta ezta ertzainak euskararekiko jarrera ona izateko ere. Espainiako polizi erregionala ematen du...

▶ Enekoitz Esnaola

Saninaziotan tabernetako musika gaztelaniaz?

Udan sartu gara dagoeneko, festak non-nahi daude eta Azpeitian ere hasi gara saninazioetako festak prestatzen. Askotan, festetan ez ezik, larunbatetan ere taberna dezentetan gaztelaniazko musika entzuten dugu eta saninazioetan jende asko etortzen denez kanpotik, beldur naiz musika mota hori ez ote den tabernetan areagotuko, salbuespenak salbuespen, euskal musikaren orde. "Eskatu egiten dute", esaten dute tabernari batzuek, baina ez dakit zenbateraino den hori horrela. Denongan daude ohitura batzuk aldatzea, baita tabernariengan ere. Euskara eta festa (ere) uztagarriak direlako.

▶ Uranga

Iritzi horren erantzunak

Astakeria

Musika ondo zagok/n protesta egiteko erabiltzea, eta baita musikagatik protesta egitea ere, baina hori astakeria botatzen duana. *Canción del verano* denak (ia) gaztelaraz direla, eta taberna askotan horiek jartzen dituztela, bale, baina segun zer estilotako musika (adibidez nik neuk aditzen duana) berdina zaik/n euskaraz edo gaztelaraz izan, ia beti (igual beti) erdaraz kantatzen duten horiek ere espainolismo horren aurka zoazek/n eta.

▶ Xabi

Espainolismoaren aurka, espainolez?

Ez naiz ni tabernetan soilik euskal musika jartzearen aldeko, gaueko hamarretatik goizeko bostak arte kantu asko jarri behar delako, besteak beste. Baina ez dut ulertzen nola egin daitekeen espainolismoaren kontra, espainolez jardunda. Esango didazue La Pollak, Barricadak edo SAK espainolismoaren aurka egiten dutela, baina ez nago ados. Azken finean, espainolez ari denak Espainia defenditzen du. Bestela, ordura arte espainolez abesten zuen Kortatu zergatik hasi zen euskaraz abesten?

▶ Xabier Gantzarain

Gantzaraintzat

Ni ez nintzen La Polla, SA edo Barricadagatik ari. Benetan uste al duzu Salamancako edo Madrilgo edozein punk taldek (adibidez) Espainia dutela euren aberritatz? Euskaraz dakieneak euskaraz abestu behar lukeelakoan nago, baina ezin diozu edozeini eskatu euskaraz abesteko. Euskal Herrian bizi den orok, bai, hala behar luke. Zure ustez gaizki al dago festa euskaldun batzuetan Reincidentes edo Banda Bassotti taldeen musika jartzea?

▶ Xabi

Irizpideak

Ondo iruditzen zait Reincidentes edo Banda Bassotti bezalako taldeen musika jartzea, eta baita La Polla, Barricada, Doctor Seseo edo SA bezalakoena jartzea ere. Baina irizpidea ez da hizkuntza. Irizpidea hizkuntza balitz (saninaziotan tabernetako musika gaztelaniaz?), talde horien abestirik ez genuke onartuko, eta aldiz, euskaraz abesten duten talde txarrak ere entzungo genituzke. Baina niri ez zait gustatzen talde bat euskaraz abesten duelako, eta ez dut baztertzen beste bat gaztelaraz, frantsesez edo ingelesez abesten duelako. Atsegin dut The Clash, erdia ulertu ez arren.

▶ Xabier Gantzarain


te impresos, lo que tiene su explicación por ser los de menos circulación pues únicamente se expenden casi sin excepción todos ellos de ida y vuelta. Así se explica que pase actualmente de 200.000 los billetes citados de trayecto local y bilingües y sean los primeramente impresos que

se conservan. De ellos, 160.000 en el almacén y los 40.000 restantes repartidos en los casilleros de las estaciones. Es pues, por su número y por las dificultades actuales de proveerse de cartón la razón de su existencia. (...) En todo caso, si desde el Consejo se supiera que se co-

metía una falta con su expedición, obedecerían, como han hecho, al instante".

Bukatu zen frankismoa, etorri zen demokrazia, eta 1986an, Urola trena bukatu zutenean, txartelak erdaraz baino ez zeuden! 2004an, berriz, bi hizkun-

tzatan daude; esan nahi baita, Azpeitian oraindik gaztelaraz ere badaudela treneko txartelak... ▶



2004 ▶ euskaraz, eta gaztelaraz

Euskararen gorabeherak ▶



Koloretan blai!

Jaso itzazu opari hauek*
ARCOIRIS baleak bilduta
ondoko errebalatuekin:
pelikulak, digitalak**  
edo  **Kodak Picture CD ak**

3 bale ARCOIRIS
20x30ko handitza edo
10 argazki digital ondoz
ondoka artxiboetatik
(10x15).

5 bale ARCOIRIS 
Irratidun burkoa

6 bale



GORA. Urke argazkiak

Euskararekiko konpromisoak ugaritzen ari dira herrian. Esaterako, Urke argazkiak dendak publizitatea euskaraz atera berri du. Bejondeiola!; hori da bidea.



BEHERA. Seinaleak

Obra asko egiten dira herrian eta beharrezkoak dira zenbait seinale jartzea. Baina horrelakoekin euskaldunok kaskoa bezalako babes asko beharko ditugu.



Behatokia ▶ (euskararen eskubideen urraketak salatu ahal izateko telefono zenbaki berezia)

 **902 19 43 32**

Eskubidea ▶

“Eskubidea dugu euskarak toki nagusia har dezan gizarte-kultura eta aisiarako gertakari eta zerbitzuetan”

Euskal Herrian Euskarazen
'Bideak' eskuliburutik hartua;
Uztarrian dago edonoren eskura

Albisteak ▶

Hedabideen esparruan lan ildo berria hasi du EHEk


▶ “Komunikabideen esparruan euskararen presentzia oso mugatua da”.

▶ “Erdarazko hedabideak erraz ugaltzen dira, eta, bien bitartean, euskarazkoen kontra erasotzen da”.

▶ “Inoiz baino erdarazko hedabide gehiago dago eta administrazioaren laguntza dute zabaltze bide horretan. Euskarazko hedabideek, ordea, herritarren babesarekin eta lanarekin egiten dute aurrera, administrazioari presioa eginez”.

▶ “Zenbait komunikabidek euskararen aurkako jarrera aktiboa dute: euskararen aurkako hizkuntza politikak babesten dituzte, euskararen inguruko berriak manipulatu egiten dituzte, eta euskara folklorearekin lotzen dute. Horrela, hizkuntzaren izaera modernoa ukatzen zaio euskarari”.

▶ “Egoera horren aurrean neurriak hartzeko garaia da, eta hori da EHEk egingo duena. Euskarazko hedabideak sustatzeko parte hartuko dugu, eta euskara normalizatzeko neurriak hartzen ez dituzten hedabide erdaldunen jarrera salatuko dugu”.



LASAO
AZPEITIA KO ALTZARIAK

Bai Euskarari Ziurtapiria

bai

Guk zerbitzua
euskaraz

2004 udaberria udara



%20 eta %40
merkealdak



zure oporretarako
behar duzuna



Santi Lazkano Kirolak



Jose Artetxe, 1 Tel/Fax: 943 81 16 50

Babesa
gazte moda

festetan ere
DESBERDINDU ZAITEZ

Xanjuandei auzuen gatxauden! Urbitarte, 9 ♦ Tel. 943 151369